

ANAITASUNA

290. zenb.

1975.eko urtarrilaren 31ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

Gipuzkoan urak haundi!



ORIA GARAIA. Hauxe da Oria Garaiko erdigunea. Segurako herria ageri da, Zerain bidetik hartuta. Argazkiaren barreneko zelai hau («Madura» deitu ohi diote goiherritarrek) urpera joango da, urtegia egitean.

Urtarrilaren hamaikan Oria Garaiko herrietako ordezkariak eta herria Kontseilu Irekian bildu dira Segura-ko elizan. Bistan dago, gaurreguneko egoeran, herri xumea honelako taldean biltzen denean, lapikoa irakiten-edo dagoela. Zer gertatzen da, ba, Oria Garaian, honelako gertakiririk sor dadin? **Urtegi** (pantano) **haundi bat egin nahi diote Gipuzkoako Oria Garaiari.**

Oria Garaia urpera?

Gipuzkoako Goiherri dago Oria Garaia. «Goiherri Txiki» ere deitu izan zaio. Irundik Madrilerako kamino nagusian gatzozela, Beasain iragan eta lau bat kilometrotara dago bailara honetarako bidegurutzea. Bost herrik

osatzen dute bailara pitxi hau: **Idiazabal**-ek, herri-kaskoa bailararen kanpotik duela; **Segura**-k, bailararen bihotz-bihotzean; **Mutiloa**-k, haranaren eskuineko txoko izkutu batean; **Zerain**-ek, ibar guztiaren begirale, mendi-kaxkoan, eta **Zegama**-k, Altsasu-ko bide zaharraren atezain bezala. Bost herri Aizkorriren babesean.

Bakoitza, bere nortasun apartekoarekin. Segura-k ez du galdu oraindik kondairak eman dion halako jantzitasun hura; baina, joan den mendeaz geroztik, oso moteldu zaio garai bateko bizitza. Idiazabal-ek, ostera, gerratetik honakoan ezagutu du, bizilagunez eta lantegiz, bere goraldirik bizkorrena. Zerain eta Mutiloa, laguntza ho-beagoen faltaz, nekazarien premiak ezin aserik dabilta.

azken horrialdera

Bi jokabide desberdin

Europarren hiriburu izatera doan Bruselaren, garrantzizko bilkura* bat egin da, joan* egunetan. Hogei ta hamar lagun bildu dira, Europako Ekonomi Batasunaren batzar geletarik batetan, «Espainiako egoera ezagutzeko». Haietarik gehienak Estatu honen mugen barnean bizi dira. Haien artean Donostiako legegizon bat izan zen, Enrique Múgica Herzog, Euskal Herritik joan zèn bakararra.

Bilkura hau dela eta, biltzarkideen aipamen batzuk irakurri ditugu zenbait aldizkaritan. Bi ekarriko ditugu hona. Bata donostiar horren elkar hizketa, eta bestea Estatuko Herriei buruz han esan zena.

PSOEko «euskal ordezkariak» (hala deitzen du Cambio 16 astekariak) gogor ihardun omen zuen PC alderdiak darabilen jokoaren kontra, beronen demokrazi zintzotasuna dudatan jarritz.

Ez gara gu alderdi hau bedeinkatzen hasiko. Baina, kontxo! «euskal ordezkari» horrek ez ote zuen beste gauzarik aipatzeko, Euskal Herria «errepresentatzen» zuelarik? Euskal Herriak ez ote du «ordezkari» horrentzat beste arazo beharrezkoagorik, PSOE delako hori, gainera, beste donostiar bat lehendakari den Gobernu baten partaide izanik?

Múgica hau, Enrique, halegia* —beste Muxikarik ere baitago—, alderdien arteko gorabeheretaz eztabaidatzen garratzu zen bitartean, Vincent Ventura valenciarrak Estatuko arazo gordinago eta garrantzitsuago bati heldu zion, egokiro gainera.

Hizlaria, Europako Ekonomi Batasunari begira herri eta herrialdeek dituzten gurariei* buruz mintzatu omen zen: bereiztu egin behar zirela Espainiako Estatu barruan dauden nazionalitateen arazoak, hango herrialdeen arazoetatik; beraz, herrialdeak eta nazionalitateak maila desberdinetan jarri behar zirela, eta, gainera, soluzio desberdinak eskatu. Erregimenaren barruko aldaketa nahi duten batzuek (kanpoko eta barruko aldakuntzaren alde dauden gehienek ere esango genuke guk) arazo hau asko sinplifikatzen dute, kultur aterabide soil batzuekin konponduz, gaineratu zuen valenciarrak. Baina, haren ustez, legetik kanpoko politik taldeek ez dute horrela ikusten. Arazo hau garrantzitsuago («prioritario» esan zuen hizlariak) eta korapilotsuagotzat jotzen dute, derrigorrezko* baldintza bat baita, Espainian demokrazia jartzeko.

Bestalde, valenciar honek artikuluko polit bat idatzi du bere herrialdeari buruz, «Dossier Mundo» aldizkariak lurralde antolaketari eskaini dion zenbaki berezian. Euskal Herriari buruz idatzi duenak, ordea, askoz eskasago ihardun du. Betikoa!

Guk dakigularik, Vincent Ventura izan zen, zoritxarrez, Bruselaren Herrien alde jaiki zèn boz bakararra. Euskaldunak ez zuen beste horrenbeste egin, ez hurrik eman ere! Ezagutzen ditugu, euskal politikarien artean, Múgica Herzog baino presuntuagoak; baina ez zuten nonbait deirik ukan,* edo ez ziren adi egon. Hitz batez, Europako Herririk zaharrena ez zen Europako Batasunean azaldu.

J. L. LIZUNDIA



Aurrera, irakurle eta ikasle!

Hemen gaituzue berriz ere EUSKALDUNTZEN metodoarekin, guztioi aukera emanez, geure hizkuntza nola ikas, zabal eta irakats jakin dezazuen.

Liburu hauetan arras ongi azaltzen dira hitzak eta esaldiak. Ikasleak, gehienik, gauza ezagunak aurkituko ditu, baina poliki poliki joko du zailago diren gauzetara. Honetaz gainera, hiru liburuotan, irudiak, eskemak eta esaera zaharrak agertzen dira.

Hiztegiaren klasifikatze bat ere egin dugu. Hitz batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direlarik, kontutan hartu dugu haien **noiztasun** eta **maiztasuna**.

Ba dituzte liburuok elkar hizketa eta istorioak ere. Hizkuntzak eguneroko tresna bat izan behar duenez gero, haren zerbitzua agerian jartzeko jarri ditugu istorio eta elkar hizketok.

Geure hizkuntza ikasteko, hemen duzue prest, hiru mailatan, EUSKALDUNTZEN metodoa. Eska ezazue helbide honetara: **Ribera, 6. Bilbao-5**

ANAITASUNA BIZKAIA

HAMABOSTEROKOA

JABEA:

San Frantziskoren Hirugarren Ordenako Batzarre Nazionala. Batzarburu: Miguel Zapata (Goya, 25. Madrid-1).

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdai.

Urteko abonamendua:

Bertorako	300	pezeta
Latin Amerikarako	320	"
Europa eta Ipar Amerikarako	330	"

Ale bakoitza: 15 pezeta.

INPRIMATZAILE:

Imprenta AMADO - Mazarredo, 35 - Bilbao-10

Aldizkari hau irakurri nahi baduzu, bete ezazu argi argi ondoko txartela eta bidal helbide honetara:
ANAITASUNA - Pelota, 4-1.º
Apart. 495 - Bilbao-5.

Izen-deiturak
Bizilekua
Herria
Probintzia Tel

"IBERIA EXPRESS"

Banco Condal eta Rumasa

Aspalditik zetorren premia bati erantzunez jaio eta hazi dira azken hamar urteotan katalan bankuak. Arazo honek —Kataluniako bankuen ahuleziak,* halegia*— gaubeila* luze eta lo gaiztoak ezarri dizkio katalan burgesiari. Kataluniak ez zedukan, orain guti arte, bere ekonomiak eskatzen zion banku sare autonomorik.

Finantzen filosofia jakin batekin egin dute aurrera, 1960.etik honakoan hain boteretsu agertu diren bankuok. **Atlántico** eta **Bankunió**n daude talde batean, **Banca Catalana** eta **Banco Industrial de Cataluña** bigarren batean, **Banco de Madrid** eta **Banco Catalán de Desarrollo** hirugarren taldean. Hauen atzetik datoz **Banco de Sabadell**, lekuko bankua, baina bortizki datorrena, **Comercial Traslántico** eta **Banco Condal**. Banku eta talde hauetan garrantzi handia izan du bakoitzaren «irudiak». Pentsamendu eta ekintza modu bereziak baititu bakoitzak.

Finantzetan Kataluniako ekonomia inoren eskutan zegoelako, oinbarrizko indutrigintza zabal eta ongi finkatu bat sortzerik ez zegoen. Hala zioten katalanismo berriaren ekonomiazko teorikoek. Arrazoin beragatik, teknologia aurreratu bat ere ezinezkoa zen. Madrilen, Bilbon eta beste nonnahi erabakiak hartzen ziren bitartean, bistan zegoen ez zela Katalunia bere ekonomiaz funtsean* jabetuko. Alde honetatik Banca Catalana-ren taldea izan da, Jordi Pujol aurrelari dela, su honen hauspoa. Katalan ekonomiaren izatea eta modernotasuna zabaltzeko tresna izan da bankuon goraldia. Izerdi handiren ondoren lortu du Kataluniak bere banku sarea. Etxe hauen pasiboa honela dago, milioi pezetatan:

Atlántico - Bankunió	81.000
Banca Catalana - Banco Industrial de Cataluña ...	62.000
Banco de Madrid - Banco Catalán de Desarrollo.	41.000
Banco de Sabadell	25.000
Comercial Traslántico	24.900

Banco Condal, beste handion atzetik geratzen* da. Baina Kataluniako edozein banku taldetara hurbildu babiliz, hango banku sarea indartu egingo zatekeen. Gauzak, ordea, ez dira bide horretatik joan. Ikus dezagun zer gertatu den.

1974.ean, beste zenbait bezala, Banco Condal diru* isurkirik gabe aurkitu da, joan den hazilaren* azkenetan; eta, hestualdian, besteren baten beharrean zen. Premia hauen zurrumurrua zabaldu orduko, jendea dirua erretiratzeko hasi zen. Irtenbide bakar bezala, azioak saldu beharko dizkio beste bankuren bati, beronek premiazko diru isurkia jar dezan? Nor izanen da azio hauen eroslea? Banca Catalana-ren Administrazio Kontseiluan eztabaidatzen da erosketa: Pujol alde da; beste zenbait, diru bila etor litezkeen beldur. Banco de España-ri eskatzen zaio laguntza, jendearen bapateko* diru bilaketarik gerta baledi, crantzunik segurta dezan. Mozoloarena* egin du honek.

Une horretan Rumasa (Madrile, Andaluzia) sartzen da tarteko. Rumasa prest dago Banco Condal-en erantzunkizunei aurpegi emateko. Azioetatik 25%a erosi du eta lau urtetan ordainduko (2.250 milioi izango dira). Horrez gain, beste 26 % hartzeko eskubidea aitortzen zaio Rumasa-ri.

Horrelaxe hil da, Banco de España-ren eta zenbait politikariren bedekazio guztiekin, Kataluniako banku bat. Agintea eskuz aldatu da: Madrileko Paseo de la Castellana-tik egingo da gaurgero Banco Condal-en finantzen politika.

Katalan hizkuntzako azken Lore Jokoak

1974. urtean bi urteburu aipagarri ospatu dira Katalunian. Bata katalanezko lehen liburuarena, **Les trobes en lahors de la Verge Maria**, orain 500 urte Valencian argitara emana. Hori dela eta, joan den urtean liburu azoka eta crakusketa ugari egin izan dira bertan, katalanezko oraino kulturak sendo dirauela agertuz.

Beste ospaketa bat Lore Jokoena izan da. Dakikenez,* Lore Jokoak (**Els Jocs Florals**) 1859. urtean birjarri ziren **Renaixença**ren garaian. Baina hain ezaguna ez dena, ordea, beste hau da: Lore Jokoak askoz ere zaharragoak direla, haien etorkia Ponventzako craginez* 1324. urtean cgonik, garai hartan Roselló-n lehenbiziko aldiz cgin baitziren. Ba dira, beraz, 650 urte ordutik hona iraganak.



Lore Jokoen helburua, «Maitasuna, Aberria eta Fe-dea» ongienik kantatzen zuten poetei urtero sari bana ematea zen; eta asmo horrekin birpiztu ziren joan den mendean. Azken urteotan, ordea, osterantzeko* sariak ere ematen dira horien aitzakiaz, hala nola **Prat de la Riba**, **Pompeu Fabra**, **President Companys**, **Pau Casals** eta beste, literatura saio eta antzeko lanetarako eskainiak.

1974.eko Lore Jokoak, Holandako unibertsitate eta agintari askoren laguntzari esker, Amsterdamen egin ziren; eta, aspaldion hemengo erdal egunkarietan euskal arazoez maiz* nabari* izan denez, hostasun eta boikot berbera gertatu da Kataluniako literatur sari nagusiekin hango aldizkari erdaldunetan, albiste inportante hura* aipatu ere ez baitzuten egin.

Canigó katalan aldizkarian irakurri dugunez, ihazko Lore Jokoen saridunak hauxek izan dira:

Maitasunezko gaia: «Flor natural», Miquel Palol-entzat, **Amoris** poemagatik.


Abertzaletasunezko gaia: «Englantina* d'or», Josep Colet i Giralt-entzat, **La meva terra canviat** poemagatik.

Erligiozko gaia: «Viola* d'or i argent», Josep M. Murià-entzat, **Decisió** poemagatik.

Berandutxo bada ere, bihoazkie* gure zorionak, beren hizkuntzaren defentsan hain adoretzu ari diren poeta katalan guztiei.

Kazetariak:

Joanes GOIA
Patxi URTIAGA



ipar aldea

Iparaldekoak ere euskara batuaren alde

Aspaldiko leloa* dugula esanen digute barzuek. Eta arrazoin izanen dute. Aspaldikoa da, eta oraindik zenbait urte luzeren iraupena izanen duen leloa dukegu* zorigaitzez. Zeren* eta gure mintzaira abotik belarrira ikasi baitugu, aitamene, etxekoen eta herritarrengandik. Ez, ordea, eskoletan, hizkuntza bat normalki ikasten den bezala. Horra zergatik Euskal Herrian mintzo dugun euskara, hiruzpalau euskalkitan zatikatutik aurkitzen den.

Egun* eskoletan irakatsiak diren mintzaira mota guztiak, atzo kasu berdintsuan aurkitzen ziren. Haien batasuna ere ez da egun batez egin, ez eta denen nahitara eta, oraino gutiago, denen gustutara. Gauza bat da segura, ordea, mintzaira horien batasuna batasunzaleen lanari esker egin dela.

Euskal Herrian, ba dakigu, osoki jende bereziak garela. Eta geure egungo problemen arabera* aterabideak aurkitu behar ditugula. Baina, hala ere, ez da dudarik, gure mintzairaren kasuan, euskara idatziaren batasuna egin beharko dugula, egunean eguneko urratsa* aitzinera eramanez, baldin Euskal Herriko mintzaira zeharra gure herriko eskoletan irakatsia izan dadin nahi badugu, ipar eta hego aldeko euskaldunak osoki elkar konprenitzeko gisan.*

Iparaldeko berriak hegoaldean

Atseginekin ikusi dugu, Donostian argitaratzen den ZERUKO ARGIA astekarian, iparraldeko berriez osaturik datorren sail berria.

Sail hau joan den hazilaren* erditsutan hasi du, «Urzola» izenordez sinatzen* duen idazle trebeak.

Aspaldi honetan, Bilbon argitaratzen den ANAITASUNA hamabostekari honek ere toki ederra eskaintzen die iparraldeko berriari. ZERUKO ARGIA bide berari lotu zaigu. Goresmenak biei, ezen,* kazeten bitartez, inork uste baino gehiago, iparraldeko eta hegoaldeko euskaldunak harremanetan ezartzen ahal baitira.

Eta zer da bide hoberik, sail mota guztietan hainbeste behar dugun batasunari buruz joateko?

Ekonomi eta merkatal harremanak hegoaldekoekin

Jendeak ez du beharbada biziki ezagutzen; baina, azken urte hauetan ilunpetik jalgitzen* ari zaigun batasuna* dugunez gain, hemen doi* bat bederen* nahi genuke aipatu.

Baionako Merkatal* Ganbara ezagunaz bestalde, ba dugu Baionan beste Merkatal Ganbara bat, mugaz bestaldekoa. 1913.ean eraikia izan zen, eta 1936.a arte sekulako lana izan zuen egiteko, mugaz bi aldeetako industriari eta merkatarien arteko harremanen kudeatzeko.*

Luzaz ixilik eta ezageri egon ondoren, oraingo buruzagia den Araluze jaunari esker, herriz abiada eder baten jabe egiten ari

zaigu. Mugaz bi aldeak elkarren osagarri daduzka, eta horren-gatik bere ahalak oro egiten ditu, hango eta hemengo ekonomilari, industriari eta merkatarari aitzinatuenen* elkar ezaguterazteko, harreman emankorrenen* buruz bultzatzeko esperantzarekin.

Sail ederra, eta iparralde honentzat baitezpadakoa.*

Dezagun esan ere, Baionako Merkatal Ganbarak, mugaz bestaldeko euskal herrialdeetako industriari eta ekonomilarien bisitatzeko, gizon bat hartu duela. Gizon hori, Euskadiko Lehendakari zenaren semea da. Joseba Agirre du izen-deitura. Berrogei bat urte, bost mintzairaren jabe eta orain arte Barcelonako merkatal elkarte haundi baten zuzendaria izana.

Urtarrilaren* 2an hasi zaigu lanean Baionan. Agian,* hasiko duen lansailak izanen du ondorio onik gure eskualde* honetako bizibidearentzat.

«Sud-Ouest» egunkaria

«Sud-Ouest» egunkariak leku bat eskaintzen die bere herrialdeetan, zerbait berri agertu nahi luketen taldeei.

Ber* denboran, egunkari berak, duela zenbait egun hasia, artikulua bat agertzen du egunero, egungo* egoerako Euskal Herria ezaguterazteko.

Sail interesgarria hain segur, baina bakoitzak berak gero bere ikusteko moldea azaltzekotan.

Lantegi berri zenbait, galdu diren anitzen* ordaintzeko

Azken urte hauetan, lantegi berri zenbait eraiki da Baionako, Angeluko* eta Donibane Lohitzuneko industri eremuetan.* Eta Baionako Merkatal Ganbararen buruzagi den Saint-Martin jaunaren arabera,* joan den urtean, 1.700 lanbide edo enplegu berri muntatu omen dira Baionako eskualdean.

Egia, dudarik gabe. Ez dugu, ordea, ahantzi behar, lanbide berri horik* egin diren denboran, beste lanbide asko galdu dela, lanetxe eta ofizialetxe parrasta* batek beren ateak hetsi* behar izan baitituzte.

«Euskaldunak» hilabetekariak dioenez, ihaz, ehun bat lanetxe edo enpresa gelditu dira.

Hemen agertzen ditugun zifra hau,* berak mintzo dira. Ikus: joan den urriaren 30etik hazilaren 30era bitartean, Baionako inguruan, langaldeak* 3.154etarik 3.554etara iragan dira.

Gisa* horretan goratuz baldin badoaz, langaldeak beharbada bost milatara helduko dira urtarrila bururatu orduko.

ELAIS ALAI

YURRE

DANTZATOKI GOXOA

Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

KAFETEGI **AMA & LUR** RESTAURANTA

Hala gerta baledi, orduan hamar langiletarik bat lanik gabe litzateke, 50.000 bat langile dituen Baionako eskualdean.

Dezagun esan ere, Donibane Lohitzuneko eskualdean, aspaldi honetan, langaldeak 662tarik 738tara iragan direla.

Herriko zergak* goiti ari

Aurten, jendeak, eta bereziki jende langileak, xeheak, ez du bakarrik negua izanen jasateko.* Alde batetik, lana eskasten ari da, harrizteko gisan. Eta bestetik, zerga paperak, urte hondar* guztiez bezala, hor izan ditu ordaintzeko. Estatukoetaz bestalde, herrikoak ere azkarki* goratu dira, herri eta hiri batzutan bestetan baino gehiago. Janari, edari eta soineko, oro* garestituz doala esan gabe doa.

Baionan jende multzo bat bildu zen herriko etxera, joan den hilabetean, hiriko alkate jaunarekin mintzatu beharrez, eta bi orenez* egon ziren etxe barnean. Alkateak biharamun arratsean errezibitu zituen hamabi ordezkari, eta, solasaldi bat egin ondoren, erabakia hartu zuen, herriko zergen pagatzeko eguna hilabete batez gibelatuz.* Dezagun esan, hamabi ordezkari lan-gunak, poliziak ez zituela sartzera utzi.

Agerkari zahar eta berri

Hendaia «Haize Garbia»

Hamar bat urte honetan Hendaian lan eta lan ari zaigun batasuna* dugu «Haize Garbia». Bizpahiru hilabetetarik behin argitaratzen duen agerkariak ere izan bera dakar. Orain jalgi* berria da bederatzigarren zenbakia.

Eta argitaratu ere, haunditurik, ederturik, apainduraz aberasturik eta moldiztegi eginik. Berrogei bat hostoalde* darduzka oraingoan.

Batasunak euskal kulturaren sailean daraman lan ederraren berri ematen digu. Ba du non zer ikus eta irakur. Agian izanen bide* du laguntzaile.

Mauleko «Jeiki»

Zuberoko interesen zaindaria bipil* agertzen zaigu «Jeiki» izeneko kazeta. Hiruzpalau edo lau zapabost hilabetetarik behin argitaratzen da. Kudeatzen* duen taldeak maizago* nahiko luke jalgi; baina betiko eta orotako buruhaustearekin dabilta: dirurik ez dute. Dena den, ez dira oraino ixiltzekotan.

Hona 8. zenbakiak zer irakurgai ematen digun. Mauleko klinika, egin ez dena. Non dira hobendunak*? Zer egin behar litzatekeen, Zuberoako mendialdearen salbatzeko. Iratiko etxolen* gorabeherak. Telefono automatikoa noizko?

Baionako «Hitz»

Abenduaren 26an, arratseko seietan, Baionako Euskal Erakustokian,* «Hitz» batasun* berriak bere xede* eta helburuak jakin erazi ditu, lerro honetan biltzera entseiatuko garenak: euskarazko aldizkari herrikoï eta molde berriko baten argitaratzea.

Kudeatzaileek.* Peio Bellecave eta Lucien Etxezaharreta gazte suharrek, bi baizik ez aipatzeko, nahiko lukete, aldizkari berri hau izan ledin, oraingoz biharko Euskal Herri batua egiten ari diren kultur, ekonomi eta politik saileko indar guztien ager-bide.

Xede eta helburu zinez ederra. Agian «Hitz» aldizkariak betekoa duena, bere inguruan, dudarik gabe, bilduko duen gazteria zintzo eta langile jarraikiari* esker.

Lehen zenbakia jadanik* emana da salgai. Ba du non zer irakur. Foto edo argazki anitz ere ba dakar, idazlanen laze eta zenbait aldiz nekearen* airosgarri.

Bi hilabeteren buruan eskuratzen ahalko dugu bigarren zenbakia. Dudarik ez da, oraino deigarriagoa* eta ederragoa izanen dela.

Kantari herrien bilkura Hazparnen

Hazparnen —Lapurdin— kantari berri batzuk* elkarretaratu dira, ipar eta hegoaldekoak, ez kantuz aritzeko, beren artean kantuaz hitz egiteko baizik.

Egunkariak, dirudienez, ez dira bilkura* horren izariaz* ohartu, HERRIA astekaria salbu. Jendearen artean ere ez da biziki aipatu; doi* doi jakin da, zenbait kantari bildu direla. Menturaz* hobe izan da honela, arrabots* haundirik gabe, baina segurki, egiten diren lanen arabera* egin baita bilkura hau.

Baina holakorik ez da izan noski orain arte, gure aldean bederen;* eta uste dut, biltzarre hau urrats* baliosa izanen dela euskal kantuaren aitzinamenduaren* alde.

Lehenik puntu bat argitu nahi dut. Kantari «berriak» aipatzean, plaza edo zinema saletan presentean* gehienik entzuten diren kantari guztiez mintzo naiz, besteak bezala. Ez du esan nahi horrek, agertzen ez diren kantariak —eta kantu zaharrak errotik* ezagutzen eta kantatzen dituztenak ba dira uste baino gehiago, gure herrietan— gutiesten* direla. Horretaz mintzatu dira preseski Hazparnen bildu direnak. Lehengo kantuen eta bertsoaritzaren sartzeari aipatu dute, ikusgarri* berean bi izan molde horien agertzea hain errax ez bada ere. Eta nik, behatzaile* gisa* iruditzen zaidan bezala eginen dut galde hau: ez litzateke* on, lehengo kantuak tresnarik gabe kantatzen dituztenetarik bat edo beste ekar eraztea? Zeren* publikoan adin* eta gustu guztietarik izaten ohi baita.

Biltzarre horretan, beraz, kantaldien hobetzeari jarraikitze-ko erabaki zenbait hartu dute. Orain arte, gehienetan, noiznahi eta nonnahi edonork muntatzen zituen kantaldiak. Bestalde, ikusgarri horien muntatzeko arrazoinak miatzerakoan,* ez zen kilika* izan behar, eta ba ziren hain segur azeriak hor ere.

Gainera, hiru-lau hilabetez, udan, ez da kantaldirik egiten; eta gero, hasian* hasi, burrustan* heltzen dira, eta berdin 8 kilometro barne, bi aldiz segidan kasik.

Kantaldien behar bezala programatzea erabaki da, geografi eta denbora aldetik. Honen helburua publikoaren berritzea litzateke.

Kantaldi baten muntatzeak orain ez bezalakoa behar luke izan. Zeren erraxegi baita kantarien hitzartzea,* programa batzuen hedatzea,* sala baten aurkitzea, gero sos* pilika* bat sakeleratzeko, eta Jainkoak daki zertarako. Kantaldia, muntatzaileen aldetik, izerdi gutiz diru egiteko tresna bat da. Beraz, gauzak haxean* ezarri nahiz, bi puntu ikertu dituzte kantariak.

1. Euskaltzale edo abertzale direlakotz, ibil daitezke* kantariak oraino ere beti urrurik* honen edo haren zerbitzuko?

Euskal kulturaren alde fermuki lan egiten duten batasunak* abantailatu* behar dira. Hala nola Seaska: aurten, 300.000 franko (berri) behar ditu atera nolazpait. Kantari berrick primantza ematen diote, gastu haundiak baititu, eta ikastolen eraikitzea eta zutik atxekitzea* gure nortasunaren aldeko lanik beharbada beharrezkoena dela iruditzen baitzaie.

Bestalde, kantaldi moldatzaileei eskatua zaie gisa* guztiez, kantariak eta kanta egileei ikustate* gehiago egitea. Orain arte, erdi urrurik edo arras* urrurik ari izan dira, gauak galduz, lana utziz, anitz* bide eginez, haurrak norbaiti begiratzerak* utziz, eta holako. Beste arazoin bat ere, pisuagoa, agertzen dute: kantaldiak industria ttipi bat bilakatzen* ari direnez gero, langile lehenak kantariak dira. Beraz, printzipioz ere, doi* bat pagatuak izatea eskatzen dute. Bestalde, pagatuak izanez, ez dira inoren peko agertzen, eta bakoitza juje* gelditzen da hari edo honi bere irabaziaren edo irabazitik zerbaiten emateko.

Hemendik aitzina, gutien bat eskatua da, beraz: ehun libera berri, bideko gastuak kontutan har

2. Kantaldiek gero eta hobeak izan behar dute. Bigarren puntu honek garrantzi handiagoa ha zuen, eta kantariak horren arabera hartu dituzte erabakiak:

Mikroek onak behar dute izan eta behar bezala ezarriak. Alegia^{*} deus ere ez, kantaldiaren kausitzean^{*} ba dute beren garrantzia.

Ahalaz,^{*} argi jokoak ere muntatzekoak dira. Kantaldiak ikusgarri oso bat behar du izan, eta balia daitezkeen tresna eta joko guztiak erabili behar dira.

Presentatzailearen lana umila da, baina arras inportantea. Publikoaren eta kantarien arartekoa^{*} dela oharturik, bien artean lotura bat behar du sortu, giroa pitz erazi, jendea bildu^{*} eta kantuaren ulertzerak ekarri. Ezin dezake, beraz, lan hori nor-nahik egin.

Kantariak elkarretaratu behar lukete oren^{*} bat lehenago, beren artean kantuen programatzeko, gaiak hobekienik partekatuz. Alabaina,^{*} publikoarekin lokarriak berehala sortzeko, jakin behar da, behatzaileak ez direla bat beren gustuetan: batzuk sozial gaitiaz dira minbera, beste batzuk politikakoetak; zenbait, gauza berria ikusi nahiz datoz, beste zenbait, irria maite dute-lakotz, eta abar.

Horrek ez du esan gura nahitaez, kantua eta kantariak publikoaren meneko daudela. Kantariak, bakarka edo taldeka, ba dute beren nortasuna, molde berezi batez beren kantuari esan-nahi bat emanez; eta jendeak hortaz behar du ohartu, hori behar du ulertu. Horrengatik, kantaldi bakarrean, bizpalau kantari aski^{*} lirarteke, koral batekin, kantu zaharrak eta bertsolaritza ere sartuz. Orain arte, kantari gehiegi lerrokatzen da aldi

bakoitzean, eta publikoak ez du beharbada hartzen kantuaren izari guztia, denbora eskasez.

Horretarako, garrantzizkoa da mikro eta argi jokoan lana, bai eta denbora eta programaetzea ere.

Baitezpadakoa^{*} da kantaldi bakarrean hegoaldeko kantariak izatea, eta ez beti berak, ahalaz. Kantaldia Euskal Herri osoaren kantua da, eskualdeek^{*} problema diferentek ukanik^{*} ere, edo, hobeki, ukateari esker.

Xede^{*} hori obratuz, kantaldiak anitz irabaz lezake mamiz eta formaz, bildu diren kantarien arabera. Bestalde, kondizio horrietan, gastu gehiago izanez, muntatzaileek zazpi eginahalak eginen dituzte, publizitateaz artatuz,^{*} publiko herri baten biltzeko. Esan daiteke, orain arte hamar milaren bat datorrela kantura. Gisa horretan, kantua zabalduko dela pentsa daiteke. Ber^{*} denboran, arauz,^{*} beste kantari batzuk agertuko dira.

Kantari berriak beharrezkoak dira. Zeren euskal kantuak, hobetzekotan, atzerrian barna ere behar bailuke hedatu,^{*} gure Herriaren deia herritik kanpo adierazi. Bretoin kantariak, noski, aspaldian ohartuak dira puntu honetaz. Berrikitan,^{*} hemen gaindi^{*} pasatu dira lau, eta toki guztietan jende asko bildu dute. Eta ba dute, bestalde, kantari bat Frantziako hoberenen mailan.

Baina kantariak eskas ditugu. Eskabideak, altabada,^{*} ez zirela eskas esaten zidan Mañex Pagolak: «Nonnahi ba genikek kantuz aritzekoa, eta nahikoa. Baina mugatuak gaituk: denborarik ez; geure lana ba diagu, bestalde, eta ez duk kantaririk aski».



**Gaurkoa zarenorri
guk ezer eskaintzean,
biharko emakumeari ere
ari gara eskaintzen.**

Laguntza berriak
zuri ematean,
zure nekeak, zure kezka zaharrak
dihardugu arintzen.

Berriak dira,
zuretzat ditugun asmoak:
onhartzten zailtxoak beharbada,
guztiontzat baitira berriak.


Baina zein ederra den pentsatzea,
gaurko urrats zailok
aurrera gaituztela bideratzen,
biharko digutela
bidea urratzen!

Emakumearen Bankua.
Gaurkoa eta Biharkoa.

BANCO DE BILBAO



Horra, beraz, biltzarre horretan erabili diren pentsaketa la-rienak kantaldien hobetzeari buruz eta kantuaz. Hirugarren puntu bat oso funtsezkoa aipatu dute, baina beste aldi batez ikertuko: euskal kulturgintzan kantuak ea lekuri duenentz, eta zein. Berriz bilduko direnean, horretaz esanen dugu hitz bat. (Leon HAIZAGER.)



bizkaia

Beste euskal aldizkari berri bat

Deustuko «Zubibarri» taldeak «Zubikoak» izeneko aldizkari berri bati eman dio hasera.* Euskaraz eta erdaraz agertzen da. Aipaturiko taldea 200 bat gaztek osatzen dute. Aldizkarian erabiltzen dituzten gaiak, zabalak dira, baina batez ere kulturari atxekiak.* ANAITASUNA sarritan aipatzen dute. Geure esker onarekin batean, geure laguntza ere eskaintzen diegu gazte kementsu hauei.

Euskal jaialdia Trapagan*

Bizkaiko mealangintza* eskualdeko herri honetan ez da euskaraz mintzatzen gaur, alboko beste guztietan bezala. Hala ere, Trapagatarrek ba dute euskal kezka, beste euskaldunen aldetik laguntza pittin bat behar duena. Ikastola bat dute, euskarazko gau eskola bat, eta zenbait txistulari eta dantzari gazteren taide bi ere. Herri honen barrutian daude Bizkaiko lantegi nagusienetariko batzuk, hala nola Babcock Wilcox eta General Eléctrica Española.

Urtarrilaren* 12an, igandekari,* euskal jaialdi bat eman zuten, herriko Casa Social-eko gazteek antolatua. Bilboko San Anton korala, Jon Enbeita kantaria eta Arro-la trikitilaria etorri ziren, parte hartzera. Sarrera dohai-nik* zelarik, aretoa* jendez bete zen, eta txaloak ugari entzun ziren. Azkenez, elkarte antolatzaileak herrian obratu gura litzuzkeen xedeei* buruz, elkar hizketa bat sortu zen.

«Altos Hornos» entpresako langileak greban

Barakaldo eta Zestaoko «Altos Hornos de Vizcaya» Euskal Herriko entpresen artean nagusienetarikoa denez gero, hango langileak istilutan* dabiltzanean, albo-ko lantegietakoak zuhur egoten dira, hango gertakizunen zain.

Urtarrilaren 9an «Altos Hornos»ko langileen hitzarmena* sinatua* izan da; baina langile xehe gehienak ez datoz bat soldaten gorapenaren portzentaia desberdinarekin; eta grebaldi laburrak egiten hasi dira, eta Barakaldo eta Zestaoko kaleetan zehar sugea* egiten ere. Soldaten goraldia ez omen da urria, baina goi mailako

langileen abantaila* desegokia oi* da, langile arrunton* kaltetan.

Euskal egutegietako anarkia

Ezaguna da, talde interesatu batzuen, Euskaltzaindiari eta euskara batuari oztopoak ipintzeko joera. Hona hemen joera zital* horren ondorio tamalgarri* bat: euskal egutegietan agertzen den anarkia.

Aurten hainbat entpresak argitaratu du bere egutegia euskaraz. Baina nolako euskaraz! Hilabeteen izenak, nork bere erara jarri ditu, nahaste izugarria sortuz; eta, nola ikastola gehienetan euskara batua erabiltzen den, irakasleek egutegi hauei paper zati batzuk ezarri behar izan dizkiete, oker dauden izenen gainean, ikasleak nahas ez daitezen.

Eta, egutegiez ari garclarik, JAKINEK argitaratu duen Ormaiztegiko Imeguisa etxearena txaiotu behar dugu. Euskaltzaindiari jarraitzen zaio, eta, gainera, Jose Luis Lizundiak eginikako Euskal Herriko mapa eder bat dakar, euskal lurren eskualdekatzearekin.*

Xabier Mendigurenen 150. hitzaldia

Urtarrilaren* 10ean hitzaldi bat eman zuen Xabier Mendigurenek Deustuko La Salletarren ikastetxean, «Zubibarri» kultur taldeak eratu. Ehun bat gazte izan zituen entzulo, gaia euskal literatura zelarik.

Presentatzaileak esan zigunez, Mendigurenek 150 bat berbaldi eman ditu Euskal Herriari zehar; eta zifra honek nabarmenki erakusten du, hizlari eta idazle honek duen arrakasta.*

Jakin dugunez, eta beste zenbait lanen artean, inprimategian du «Heidi» nobela famatuaren euskal itzulpe-na, eta orain Salgari italiar idazlearen liburu bat euskaratzen ari da, biak euskaldun gazteñoek eskainiak.

Xabier Kintana, aita

Urtarrilaren 13an jaio zen Bilbon Jurgi Kintana Goiriena, Xabier Kintana euskal langile ekinaren* lehen semea. Zorionak Xabierri eta Lejoako ikastoiako andereño eta haurren ama den Mari Karmen Goirienari.

Lapurrak Lejoako ikastolan

Urtarrilaren 10 eta 11 bitarteko gauean, ohostua izan da Lejoako ikastolan, oraintsu erositako multikopista berri bat. Ez dakigu nor edo nortzuk izan diren lapurrak; baina, segur aski,* ez dira euskaltzaleak izan, ez baita-goke* euskaldunik, ikastola bati horrelako kalterik egin diezaiokeenik.

Multikopista horrekin irakasleek fitxategia eta gaine-rako materiala prestatzen zuten, eta ikasleak aldizkari bat argitaratzeko asmoz zebiltzan. Orañ, ezina izango zaie lan hauek aurrera eramatea.

Ikastoletako haurrentzako sariak

Abenduaren 22an Bilboko «Santiago Apóstol» ikaste-txeko teatroan Lejoako ikastolak antolaturiko jaialdian, hara joan ziren haurren izenak bildu ziren, gero haien

artean jostailu zozketa* bat egiteko. Zozketa hori Lan Kide Aurrezkian (Caja Laboral-en) egina da, eta, nahiz jostailurik gehienak emanak izan diren, oraino bi geratzen dira banatu gabe.

Bi ume sarituon izenak hauk dira: Ainhoa Bastida Saez eta Mirentxu Agirre Azkuenaga. Beraz, joan bitez Bilboko Lan Kide Aurrezkira (Alameda de Urquijo, 46), jostailuok eskuratzeraz.

Euskara egunkarietan

Gutti bada ere, erabiltzen da euskara Iruineko eta Donostiako egunkarietan; baina deus* ere ez Gasteiz eta Bilbokoetan.

Iruineko egunkarietan lan handia egiten ari da Aingeru Irigarai jauna. Bilbon ere hasi zen talde bat horrelakorik egiten; baina, zoritxarrez, oso denbora laburretan, zeren* behingoa* debekatu baitzioten euskaraz idazten.

Euskararen loratze honetan, hauk dira —egunkari, irradi, telebista— gure hizkuntzari lepoa ematen segitzen dutenak.

Otsailaren 16an txistu jaialdia Bilbon

Euskal Herriko Txistularien Elkarteak eraturik, Bilboko «Santiago Apóstol» ikastetxeko teatroan, txistu folklore jaialdi bat izanen da, otsailaren* 16an (igandéz), goizeko 11.30 orenetan.*

Parte hartuko dutenak, hauk izanen dira: Bilboko Txistulari Banda Munizipala eta Lejoako ikastolako «Txikiak» dantza taldea. Jaialdi honetan jokizun* berri batzuk presentatuko dira eta txistulari hoberenak, entzuleen botuen arabera* sariztatuak izanen. Sariok Txistularien Elkarteak eskainiak dira.

Bide batez esan dezagun, Euskal Herriko Txistularien Elkarteak Bilbon eginen duela bere urteroko biltzarre nagusia, Liburutegi Munizipalean, Bidebarrieta kalean, martxoaren 9an, igandekari,* goizeko hamaiketan.

Haurren Egunak antolatzen dituzten elkarte guztiei, Ondarroako KRESALA elkartearen eskutitz irekia

Hainbat eta hainbat Haurren Eguna deritzan euskal jaitan parte hartu izan dugu, elkarte honetako kantari, txistulari eta dantzariekin.

Toki guztietan, eguneko egitarauetan,* haurrentzako gertaturiko meza berezi batekin aurkitu izan gara. Bai eta meza horretara talde guztiak komitiban joaten ikusi ere.

Askok eta askok ikusi dituzue, elizara hurreratzean, gure dantzari eta txistulari taldeak komitiba horretatik irteten.* Bai eta harritu eta... eskandalizatu ere, jokabide horren arrazoina jakin arte, noski.

KRESALA elkartearen pentsaera eta jokabidea

Gaurko eta geroko Euskal Herriari begira gure haurrak hezten* saiatzen den elkarte bat duzue KRESALA elkarteak. Dantza, txistu, kantu eta gainerantzekoak bido horretan erabiltzen ahalegintzen gara.

Geure Euskal Herria gaur egun pentsaera askotako jendez osaturik dugu. Erlijioari buruz ere, nabarmen agertzen zaigu desberdintasun hori. Eta, geroari buruz, desberdintasun hori sakonagoa eta zabalagoa izango dela, ez dugu zalantzarik.

Hau honela izanik, euskal kultura ezin dezakegu inondik ere pentsamolde batekin lot. Bestalde, gure haurrek eskatu eta esijitu egiten digute, Herri pluralista batetan bizi eta lan egiteko gerta ditzagun.

Problematika honi erantzun nahirik antolatzen dira Haurren Egunak, edo eta antolatu behar lirateke, noski.

Eta, orain, nahitaezko galde batzuk aurrez aurre ditzkigu.

Haurren Egunetako meza ofizial horik,* Herri pluralista ala pentsaera bateko Herri baten ezagugarri direa*? Geroko ala lehengo Euskal Herri bati erantzuten diotea*?

Ez al dira asko eta asko, eliz girotik kanpora Euskal Herriaren alde lanetan dihardutenak? Zergatik hauk,* euskal kultur arloan antolaturiko Haurren Egunen batetan, nahitaez, Eliza batekin topo egitera behartzen ditugu? Beste erlijio pentsaera batetako euskaldun horiek, Euskal Herriari begira, ez al dituzte eginkizun eta eskubide berdinak?

Problematika honen aurrean, Herri pluralista bati erantzun nahirik, KRESALA elkarteak jokabide hau hartu ditu:

1. Elkarte honetako edozein taldek, **talde bezala**, ez du parterik hartzen, ezelako* meza, elizkizun, edo beste edozein erlijio arazotan. Bakoitzari, nahiz haur nahiz guraso, bere askatasun osoa errespetatzen zaio.
2. Talde batek irteeraren bat duenean, taldeko arduradunek onhartu egiten dute gurasoen kritzia eta eskabidea. Halaber,* gurasoen eskabide hori betetzen, arduradunek berek laguntzen dituzte haurrak.

Beste elkarte batzuri deia

Une honetan, hauxe dugu, geure Herriarentzat guk aurkitu dugun erantzunik jatorrena. Beste kritzi batzuk ere ba dirateke, noski. Prest gaude, geure kritzi eta jokabideei buruz kritika aberasgarri gutiak entzun eta aztertzeke.

Ageri hau egitean, argibide bat eman izan diegu, gure jokabideaz nahasturik gelditu direnei. Halaber, haurren hezkuntzari* loturik gauden hainbat eta hainbat elkarteren artean «mahai biribil» bat sorterazi nahi izan dugu, honetaz eta beste arazotaz guztiok geure eritzi eta jokabideak aberats ditzagun.

Azkenez, gure pentsaera onhartzen duzuen elkarte guztioi, dei bat egiten dizuegu: pentsaera hori ekintzetan ere gorputz egin eta ager dezagula, batez ere Haurren Egunak antola ditzagunean.

Haurrentzako liburuak

Tomas Elortzak kudeatzen* duen taldeak, urte bitan, 12 liburuxka kaleratu ditu, orotara 46.000 ale, hiru mailatan sailkatuz: **Kukurruku** sorta 6-7 urtetakoentzat, **Txanxangorri** sorta 7-8-9 urtetakoentzat eta **Gaiak** sorta 7-8-9 urtetakoentzat.

Aurten beste 15 liburuxka berri egingo dituzte, beti bezala euskara errazean idatziak, eta artista handi eta ttikiren marrazkiz* hornituak.

Liburu hauk oso egokiak dira ikastoletarako, alfabetatze ikastaldietarako, erdal kolegioetan cuskaraz irakasten dutenentzako, eta heurrei, euskaraz irakur dezaten, cuskal liburuak erregalatu gura dizkietenentzako.

Eska daitezke helbide* hauetara: Donostian, Gordailu (Vergara, 21. Tel. 429779) eta Iñaki Beobide (Ferrerias, 1. Tel. 420982). Bilbon, Librería Verdes (Correo, 7. Tel. 212903).

Patatak patatazaleentzat eta euskal kultura euskaldunontzat

Norbait, goiko izenburu hori irakurtzean, ANAITASU-NA argitaratutako beste artikulu batez oroituko da beharbada. Ez da ttikia, izan ere, artikulu hauen artean dagoen zerikusia, oraingo hau bestearen crantzuna baita.

Lehenik, Josu Cepeda jaunarekin saiatuko naiz.

Puntuz puntu xehehi joanik, ez diat ezer csango, kantari talde famatu batetakoez kritikatu duanagatik, berok baitira gai hirc salakuntzei crantzun egoki bat emateko. horretarako beharizanik egotekotan. Egotekotan zioat, jokaera hura* aski justifikaturik dagoela uste baitut.

Bestalde, neure «doluminik» zintzoena, presentatzailo bezala pasatu behar izan hituen une hestu-larriengatik.

Baina segi dezagun. Gero ideologia aipatu dituan ez gero, zail egiten ziaidak, ideologia konkretu —niretzat abstraktu— eta czagun —niretzat ezezagun— hura* zein zen igartzea.* Horregatik, jakin nahi nikek, hireak bezalako «espiak» non «saltzen» dituzten, merkeak izango baitira. Eta dioana susmoa baldin bada, kontuz! gaurko munduan arrazoin zientifikoak crabiltzea komeni baita. Ba diaitekek, noski, ideologia «konkretu eta ezagun» hori aipatzea, zemai* bat izatea ere; kontuz! holakoei egindako mehatxua arriskugarria baita beti, eta areago.* adierazpide desegoki batez egiten denean, hik cgin duan bezala.

Gainera, cz dieritzaat desegoki «askatasuna, askatasuna» oihukatzeari, areto* hartan gure herriaren askatasun «osoa» ukatzen duen zenbait jende zegoenez, hauek baino askatasun gehiago nahi izango baitzuketen besteek.

Hurrengo puntuan aipatzen denaz, hirekin ados nia-gok, cuskara ez dakien batek dakien bati «maketo» deitzea cz baita guztiz normala; baina ez diakiat, afirmazio hau cgiazkoa den. Sozial zentzua, ordea, beste era batez agerterazi behar zuan sasoin hartan, eta ez musikaz.

Pausaldian crabaki zena ez diat guztiz argi ikusten, eta crabakiaren arrazoina ez diat uste «taldearen jarrera* zatikatzailea gorabehera*» izan zenik ere. Arrazoina cz ote zen, aipatu* egoerari beste kantariak behar aina* garrantzi eman ez ziotela, eta lehenbizikoen cz kantatzeko jarrerak crabaki hori hartzera bultzatu zituela?

Noren aurrean agertu behar zen guztion batasuna? Argi dagoena, zera duk: guri komeni izan zaigunean, ez dugula oztupo askorik aipatu, inoren aurrean «batasuna» apurtzeko.

Arrazoina ez ote zen nork bere belarria ez agertzea, hango jarrerak ikusirik, eta beldurrak edo komenientziak bultzaturik? Kantari bakoitzak —eta are* gehiago sozial kantariak— bere nortasuna badu, zergatik ez zuen nork bere jarrera mentendu, egokia zela pentsatu bazuen lehenago?

Ala nork bere jarrera sakrifikatu ote zuen, besteena onhartuz? Ala ez ote zuten pentsatu ere egin, jarrera bat hartu behar zela sasoin hartan? Ez pentsatze horri axolagabekeria haundiegia dieritzaat «sozial kantari» baten gan.

Ez dituk, horregatio,* istiluak hemen bukatzen. Egia csan, pataten eta elektrapilen jokaera ez diat nik ere bidezko* ikusten, ez baitira hauk pertsona zibilizatuen arteko harremanak argitzeko tresna egokiak, naiz eta cs-painolzaleren bati zuzenduak izan.

Eta bukatzeko, zertzelada* gisa,* borondate oneko batek csan lezakeenez: «Hazilaren* 30ean beste urrats* bat eman zen, egunero bezala, gure arazoan konponketa-rako bidean».

Ni ez nioak, ezagutzen ez dudan Vladimir Ilych Ulyanov-en csaldiaño biribilik botatzera, nahiz eta gero, nola cz, aitormen honegatik «kulturgabe» deituko nauten!

Eta hirc cspainolezko csaldiari buruz, lasai egon, ez baita hori hi «cspainolzale» kontsideratzeko arrazoinik egokiena.

Cepeda jaunarekin saiatu ondoren, aspalditik ezagutzen dudana, nahiz eta berak ni ez hain ondo, Xabier Gereñori crantzun nahi nioke:

Tamalgarría* benetan, zuk artikulu hura idaztea, Xabier, informazio falta izugarritz jokatu baituzu. Argi gera* bedi, hauxe dela nire ustea.

Subnormalen alde dirua batzeari txalogarri deritzaat. Baina hori izan ote zen antolatzaileen helburua? Nire ustez, hobeto informaturik egon behar dugu. Euskal kantari-ri laguntza ez dut zalantzatan jartzen, baina bai, «euskal kantari» izanik, sasoin hartan era hartako laguntza-ri egokitasuna.

Bestalde, cuskaldunok agerterazi egin behar dugu geure kultura, bai kantuen, bai bertsoen, bai dantzen bidez... Baina ez dezagun pentsa, geure egoera horrela bakkarik aldatuko dugunik; eta horretara dedikatu behar badugu, beste ekintza batzuetara ere dedikatu beharko dugu; eta urteak 365 egun baditu, ba dago era batean eta bestean dedikatzeo egunik nahiko.

Familia batetan, poza familia osoak agertzen du era berdinean, eta samintasuna beste batean. Guk euskaldunok, ostera,* bakoitzak gura duen bezala joka genezake, antza.* Jokaera polita eta elkartasunaren agerpide ego-kia benetan!

Aipatu* oihukari hauk* erdal jaietara joan ez badira, cz da izan, noski, joan nahi izan ez zutelako; ez da, beraz, bidezko, horregatik inor «erdaltzale» izendatzea. Oihukari horik,* bestalde, ba liteke mila euskal jairen antolatzaile eta custaille* izatea. Jai horren antolatzaileak lur jota ikusteak, otsoa* saminez ikusteak beste* mintzen nau; jendea «penaz» ikusteak, hori egia bada, bai penatzen nau, gure inorantziaren agerpena baita.

Euskal kantua euskal kulturaren zati bat da; eta geure egoera aldatu nahi badugu, kanta saioez aparte, beste gauza batzuk ere aitzinerazi* behar ditugu. Oihukari horiengatik, ordea, cz zaitez ardura, berok ardurarik aski* omen baitute, euskal kultura indartzeko eta lantzeko.

Bestalde, deuseztatzaile* eta eraikitzaile nor den, ikusiko dugu noizbait. (Antton SOLAGUREN.)




MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeo Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI Muelle de Uribarte, 15

BILBO-9



nafarroa

Haurrentzako agerkari berria

Iruinean, Jose Maria Satrustegiren zuzendaritzapean, komiki bat argitaratzen da euskaraz. Azken alea jaso berri dugu. «Udu garratza» du titulua. Irakurtzeko oso erraza da, eta irudi apainez horniturik dator. Ale hau Donostiako «Santo Tomás» lizeoko ikasleek egin dute; eta gure txalorik heroenak bildaltzen dizkiegu, egin duten lan baliotsuagatik. Eskariak egiteko, hau da helbidea: «Etokizuna» - Gorríti, 27 - Pamplona.

Bi kontseilari legearen eta euskararen alde

Iruinean. Caballero eta Astrain, udaleko kontseilariak, euskararen ezagutzak irakaslearen artean puntuazio bat ukan dezan eskatu dute. (Euskaltzaindiak eman ohi duen diplomaz ari direla uste dugu.)

Caballerok zehatzago adierazi du bere pentsaera:

«Nahi dutenek oro hizkuntza hau ikas ahal dezaten medioak jartzea, gure eginkizuna da; eta 1970.eko agorrileko Hezkuntza Lege Orokorrak horixe ematen du aditzera. Egia da, lege hori orain lau urte argitaratu zela, eta ez direla haren ondorioak ikusi. Baina guk, bete dadin saiatu behar dugu. Ez dirudi serioa, ez betetzekotan, talde politiko batzuek, izatez herri osoaren patrimonio diren kultur balioak berentzat hartzea. Nire proposamenduak nahi lukeena, zera da: halebria, ikastetxe nazional guztiek gutienez euskararen irakasle bana ukan dezatela».



euskal herria

Unibertsitari talde berria

Martin Arrizubieta apezaren inguruan (haren helbidea: Imágenes, 23 - Córdoba) hango Unibertsitatean ikasten ari den euskal ikasle talde handi bat elkartzen da, zientzi gaiak euskaraz lantzeko. Unibertsitari hauek Matematika eta Biologia aztertzen dute bereziki, eta antzeko beste talde batzuekin nahi lukete harremanak eduki. Beren tesinak euskaraz idatzi nahiz, hiztegi teknikoaren falta nabaritzen dute.

JAKIN argitaletxearen arrazoinak eta programak

JAKIN argitaletxeak bere abonatuari, ohitura duenez, bere martxaren berri eman die.

1974. urtean moteldu egin dela aitortuz hasten da. Eta horren arrazoinak ere ematen ditu (estrukturazkoak ez baina konjunturazkoak esango genuket), hala nola, bulego etxean gertatu erreketak, berebilerak, lapurtuak, imprimategi aldakuntzak eta ekonomi alderdiaren garestitzea.

Joan den urteko gauza onen aldetik, talde zuzentzailearen osapena da bat, eta gero hiru liburuak ukan duten arrakasta. Hiru liburuok, ezagutzen dituzte publiko irakurleak: «Axularren Hiztegia», Gerediaga Sariaren irabazle, «Euskara batua zertan den», bost hilabetetan agortua, «Lur eta Gizon», geroago aterea eta agor zorian dagoena.

1975.eko liburu zerrenda eskaintzen du, gero, JAKINek. Hona:

1. BEGIARMEN: «Sei idazle plazara» (II). Inprimategian.
2. ELKAR LANEAN: «Marx eta Jesus Europan». Inprimategirako.
3. AXULAR: «Gero». Villasanteren oharra. Inprimategian.
4. LARRAMENDI, J. M.: «Euskal artistak».
5. LAZKANO MENDIZABAL: «Gizona abere hutsa da». Inprimategirako.
6. ETXARREN, J. B.: «Donibaneko Huarte».
7. INTXAUSTI, J.: «Euskara batua. Gramatika laburra».
8. LEKUONA, J. M.: «Bertsolaritza».
9. ZABALA, F.: «Euskal Herriaren Historia» (II).
10. TARTAS, J.: «Onsa hiltzeko bidia» (zuberotarrez). Inprimategian.
11. NIMEGAKO KATEKESI ETXEA: «Kristau Bidea» (Holandako Ikasbidea).

Euskal liburugintza 1975.ean

1975. urtea euskal liburuarentzat zernolako izango den ez dakigu. Azken urteotan liburugintzak behera egin du pitin bat, zenbaki soilak kontutan harturik. Gaiaren aldetik hobetuz doa, bestalde, kritikariek diotenez. Aurten ere zer atara egongo da, segur.

Gaitza beste nonbaitetik dator. Ekonomi aldetik. Horretan, ihazko joera gaiztotu egingo da. JAKINI, adibidez, abonatuari egindako oharrean esaten denez, liburuaren salneurrietatik datozkio buruko minak. Ba dakigu, paperaren eta inprimaketaren gastuak doblatu egin direla, eta postalgoak ere gora egin duela prezioetan.

Publikazioa posible egiteko, gaurko euskal argitaletxeek abonatuaren bidez jokaten dute. Biderik hoberena ez bada ere (irakurleak ez baitu hitz osoa), gure kasuan beharrezkoa da, mezena handi eta ugariak sortzen ez diren bitartean (eta hau ere ez da biderik aproposena).

Abonatuaren eta irakurleen laguntza sekula baino premiazkoagoa dute euskal argitaletxeek. Gure herriaren egoera halakoa delako (irakurtzeko ohiturarik eza, kulturari buruzko zailtasunak, etab.), euskal argitaletxeek liburuak merke saltzera jo beharra dute. Izan ere, liburuak merke saltzen dira Euskal Herrian (euskarazkoak esan nahi dut). «Paperback» edo «livre de poche» direlakoan prezioetan dabilta gure liburuak. Eta, ongi dakigunez, poltsiko liburuaren erreboluzioa posible izan bazen, erosleek ugaltasunez izan zen. Erosle gehiago eta liburu merkeago. Eta gurean, erosle guti eta liburu merke. Kontrazio horretantxe gaude, irten ezinik.

Gainerako beste arrazoin guztiak aparte utzita ere, eta ekonomiazkoari bakarrik helduta, euskal liburuak argitaletxeari

dirurik uzten ez dion lantzean, profesionaltasunik lortzea gaitz izango da. Ezinezko, hobeto esanez Liburugintzaren aparatua amateurismoan segitu beharko du.

Euskal irakurleak, liburu bat erosten duenean, irakurtzearen ezezik, aurkitzen oso zaila ez den beste arrazoin batengatik ere egiten du, ene astez.

Langilea, lantegia, kalea

Lanuzteak, grebak, lantegi hitxiak ugalduz doaz 1975, urte honetan. Inflazioa eta bizitzaren garestitzea ez dira hurrengo bihurtunen gaitzekoak. Europa osoko arazoa da. Espainiakoa ere bai. Gure artekoa ere bai, nola ez.

Non ez dira grebak ezagutu edo ezagutzen Euskal Herrian? Manifestazioak ere «eguneroko ogia» bihurtzen ari zaizkigu. Egunkarietan ere —bakter galduetan, besterik ez bada— zerbait irakur genezake. Dirudienez, istilurik gogortxoena Bilbo, Iruine eta Tolosa aldekoak dira azkenaldi honetan.

Tolosan, esaterako, egoera oso latza da. Abenduaren 2an eta 3an grebak ez zuten indarririk izan. 11n eta 12an, bai. Eta harez gero, lantegi batzutan, gaur arte diraute. 11koan, gainera, hitxirik egon ziren denda guztiak. Orainsu, urtarrilaren 20an, beste horrenbeste. Manifestazio, kaleko ibilaldi isil eta gainerakoak, kontaezinak. 15 bat lantegi daude geldirik, edo hitxirik. 800 bat langile greban. Jendea beldurrez. Lantegi huru zenbait, zer egin ez dakicela.

Tolosako egoeran bereziki oiharturik, hor zehar dabilzan susmo, entzundako heldur, eta egin bidez diren pausoen berri pentsagarri batzuk eman nahi nituzke ANAITASUNAN, aldizkariaren baldintzengatik gehiago egiterik ez dago eta.

Grebak direla eta, informazio guti eta mesfidagarria dugu. Noiz behinka kale bazterrean harrapatu ohi diren horrietatik aparte, ahoz aho jakiten dira berriak. Klandestinitate honekin, batek ez daki zer den egia eta zer egin. Ez dago jakiterik, zeintzuk diren, atzetik, azpitik eragile dabilzan indarrak, joerak, mugimenduak. Herri xumea, informazio eta politik formazio gutikoa denez, mesfidatu egiten da. Eta, beharbada, fidagaitz bihurtuko da gerorako. Bestalde, talde eragileen izenak eta kaleko horrien bidez ezaguturik ere, nola neur talde horien indarra? Nola jakin, horiek duten benetako burruka ahalmena eta dadukaten langileekiko erakar indarra? Goazen galdetuz. Dendariek eta hola erantzun baldin badute, zergatik ote da? Laguntzeagatik? Ala beldurragatik eta mehatxuengatik? Baina nola nahi da informazioa ematea ere, informazio hori emateko bide egokirik ez dagoenean? Burruka «a tope» eta beharturik eraman, zer lortuko da? Iraultzaren lehertzapena ala behin betirako jendea higuin eraztea? Nola joka liteke bestetara, langilearen mugimendua eta sindikatuak elkar hartu gabe doazenean? Europako herrialdeetan, sindikatuak dira langileen errepresentatzaileak, hauen berauen hautapenez.

Ba dira, greba dela eta, biziki axolaturik dauden ugazabak. Edo lantegi tipiak daduzkatelako; edo entrepresa handi batzuen menpeko eta zerbizari direlako; edo, entrepresa multinazionala izanik eta beraz erabakigunea urruti egonik, ahalbide guti dutelako hemen; edo, baiñara bakar batetan egindako grebenegatik lantegiak hixtera behartuak izanik, merkatua eta bezeroak irabazteko konkurrentzi ahalbidea gal ditzaketelako. Eskualde honetatik industriak uxatu egingo direla diotenak ere ha dira, leku baketsuagoetara joango direlako edo eraman nahi dituztelako. Honekin, zera adierazi nahi dugu, greba noiz, non eta nola eraman biziki aztergarria dela, ekiteko eta gelditzeko orduan.

Greba hastera bukatzea baino erraxago gertatzen ari delako inpresioa, ba du batek baino gehiagok. Kanpoko, kaleko giroa beroturik dagoenean, lanera sartu behar dela edo lanean segitu behar dela erabakitzea baino errazagoa da irtetea. (Alderantziz gertatzen da beste kasutan). Amore ematea, edo eskabide batzuk

gerorako uztea, gaitz da («que den ellos el brazo a torcer» esan ohi da). Europako sindikatuak sarri egin ohi dute amore emate hori. Horretarako, agian, holatsuko antolamendua behar, ordea! Hala ere, gudutxo bat galtzea, gerrate bat irabazteko bide bakarra gerta daiteke estrategia militarrean. Berdin gizarte arazoetan, eta bestelakoetan. Gainera, greba bat, luzarokoa denean, arretaz eta ongi zainduz eramaten ez bada, usteldu egin daiteke. Arriskugarria da hori, hurruka ahalmena galtzen baitu jendeak orduan!

Demokraziarik ez dugu geure herrian sekula orain arte ezagutu. Ez gaude horretan ohiturik, ez hezirik, ez formaturik. Nahitaez, egingo dugun guztia kondizionatuko du horrek. Baina dantzan ere dantzatzu ikasten den bezalaxe, demokrazia ere demokrazi bideekin ikasiko da. Lantegietan eta, ba dakigu, bilkurak sarri egin ohi direla azkenaldi honetan: jendea mintzatzen da, erabakiak hotutara jartzen dira. Kontrako esperientziak ere askotxo dira, diotenez; mehatxuen bidez jendea behartuz, mendekuak ere hartuz... Baina hau guztiau nola kontrola? Holatsuko ekintzak deskalifikatzeko erakunde errepresentatzaile nagusi bat ez dagoen bitartean, langileen mugimendua bera gelditzen da gaitzaila.

Jendearen eskabideetan ikusten denez, kantitatiboa dateke greba hau, gehienbat bederen. Bizimoduaren garestitzea lotua. Beste ezeri askoz gutiago lotua, langileen ordizkaritzari, lantegi barneko agente moduari eta jabegoari, lan kondizioei, esaterako.

Politizatua ote da greba hau? Baietz uste dut. Lan organizazioa bera baitago politizatua, eta egoera zer esanik ez. Politizatua dago, paperetan behintzat. Beste kontu bat da, hala ote den langile xumearen eskabideetan. Antolatzaileek, agian, gauzak diren bezala aurkezteko beldur direlako, edo ulerterazteko eta jarraituak ez izateko beldur direlako, lantegien barruan kantitatibo aldetik jo dute. «Agian» diot Hala ere, politizatua dagoela uste dut, zentzu honetan behintzat: sistema kapitalistari eusten dion sistema politikoaren kontra geina dela. Baina euskal politika espezifikorik ez lingo. Kontu egin dezagun, abenduaren 2 eta 3ko grebak ez zuela hemen jarraitzailek izan. Ba da zer azterturik.

Lehen ere aipatu dugu, nagusi zenbait nola joka asmatu ezinik debilela. Borondaterik hoberenarekin ibilita era, irtenbide egokia ez da erraz aurkitzen, arazoa, azken finean, lan arazoa baino sakonagoa delako, nire ustetan. Baina ba da susmorik, nagusi zenbait, amore ez emateagatik, edo langabezia ba datorkeela ikusirik, soluziorik bilatzeko presa gehiegirik ez dadukala. Beharbada, langileen batasuna hautsiko den zain, greba ustelduko delako esperotan. Lock-out delakora edo entpresak hixtera errazegi joatea, horixe da arriskua. Lantegian lantegiko problemak osorik ez direlarik, langile denek onhartuko luketen organizazio errepresentatzaile bat falta da. Bailara osorako soluzioak bilatzeko alkar hizketa, horrela, ez da erraz aurkitzen.

(J. LARRINAGA.)

Liburu berriak

1. SANTAMARIA ANSA, Carlos:
«La Iglesia hace política».
Euramérica, Madrid, 1974.

Egiaztapen batekin hasten da liburua: Gaurko Elizari kontrazko bi salaketa leporatzen zaizkio. Batetik, Eliza politikan gehiegi sartzen dela, iraultzazale eta progresista dela esan ohi da. Alderantziz, beste batzuentzat, Elizak ez du politikan, giza eskubideen aldeko burrukan parte hartzen; oportunistak da, eta sarri zapaltzaileen jokoa egiten du.

Honelako salakuntzak ez dira berriak. Baina, Santamariaren erantziz, gaur Elizaren eta politikarien artean istilu berri batzuk

sortzen ari dira. Kondaira aztertuz gero, eta bereziki XIX. mendea, Elizak bere eskubideak eta bere burua salbatzeko burrukatu zela jabetzen gara. Egun, ordea, gizonaren nortasuna eta beronen eskubideak, eta bereak tarteko, aldarrikatzen du Elizak. Eta, honela, zenbait egoeraren zuzentasun ezaren kritikari gorrotatua bilakatzen da. Egungo politikari profesionalak, eta bereziki beren buruak teknokratatzat daduzlatenek, ezin dute jasan, Elizak predikatzen duen politik etiaren meneko izatea. Edozein helburu ez baita gizonari eta beronen nortasunari dagokiona.

Hau guztiau, Brasil, Paraguay, Txekoslovakia, Italia, Frantzia etab. aipatuz azaltzen du egileak.

Santamariak Elizaren politikarekiko harremanen teoria sei printzipiotan biltzen du. Hauk honelatsu labur daitezke: Gizonaren munduak (ekonomiak, zientziak, arteak, politikak, etab.) bere izate eta helburuetan ba du nortasun bat, autonomia bat. Beraz, Elizak ez du mundu horretan sarbiderik. Baina, bestalde, Elizak gogor defendatzen du, politikagintzak etika bati lotua behar duela egon. Eta, honekin, eskua sartzeko eskubidea ezagutzen dio bere buruari; Eliza mundu honetako baita, eta beronen arazoetan haragitu. Horregatik, alde batetik, konkretuki agintedunenganako menpekotasuna eta begirunea irakasten du; baina, bestetik, Jainkoari gizonari baino lehenago obediencia zor zaiola esaten du, agintedunenganako desobediencia zuzenetsiz. Elizaren jokabide praktikoa, teoriako bai baina ez delako honi lotua dago.



Mota askotariko politikagintza dago, norik egiten duen eta nola egiten duen arabera. Baina, Santamariaren ustez, Elizak politika egiteko eskubidea du. Politikan eta politikari buruz, ez ordea politika barruan, ba du eginkizun bat («la Iglesia actúa en la política y sobre la política, aunque no dentro de la política». Ikus 161. hor.). «Modu batetan eta berari dagokion eran, Elizak politika egiten du. Eta behar du egin» (185. hor.). Hitz hauekin amaitzen da liburua.

Liburu hau interesgarria da. Nahiz eta Txekoslovakiako eta Brasilgo bazterrak maizago aipatu hemengo baino, begien bistan dago, gure egoera duela egileak gogoan. Metodo hau eta beronen arrazoinak, batez ere gure artean, oso ezagunak izan arren, egileak gure egoera gehixeago aipa zezakeela iruditzen zait.

Elizaren eta politikarien arteko harremanak ez direla gaur eta hemen oso goxoak, jakina da. Hauzi hau apropos nahaspilatzen duen informazio manipulatuan ordenu apur bat jartzeko eta problemaren karkoa zertan datzan argitzeko, oso egokia deritzagu liburu honi. Ez zen noski Santamariaren asmoa, alor honetan dagoen problema korapilotsua eta praxian ezezik teoriarik ere hain eztabaidatua erabakitzea. Ezinezkoa bailitzateke liburuxka batetan.

Liburua Eliza barnetiko begiekin egingo da. Karlos Santamaria kristau fededun azaltzen zaigu. Liburuaren egituran azkeneko A eta Sainduen pasarteek duten garrantzia, honen adie-

razle. Eta, honegatixek, Eliza onhartzen duen kristautzat dela idatzia esango nuke. Ez haientzat bakarrik, noski. Egilea sinetsirik dago, egungo Elizak «moralezko indar» ikaragarria duela, eta indar horren politikazko eragipena onuragarria eta beharrezkoa duela gaurko munduak.

Puntu batzutan neutralezia agertzen zaigu egilea, beharbada Elizaren irakaspenari gehiegi lotzen zaiolako. Norbaitek, Eliza ondoegi jartzen duela ere esango du. Baina segur nago, liburuxka hau eskutan hartzen duen irakurleak ez duela amaitu gabe baztertuko. (M. PAGOLA.)

2. ERZIBENGOA J. - EZKIAGA P.:

«Euskal Literatura (III).»

Gero, Bilbo, 1974.

«Kimu» saileko liburu berri hau XIX. mendearen lehen erdiko euskal idazleen lanaz arduratzen da.

Epe horretako idazleei toki berezi bana ematen die; eta eskaintzen digun bakoitzaren informazioa honela banatzen du:

- bizitza (idazlearen biografia).
- idazlana (idatzi zituen liburuen zerrenda).
- literatur textuak (liburuetako pasarte batzuk, irakurleak idazlearen tankera ezagut dezan).
- eritzi kritikoa (idazleari buruz).
- ezagugarriak (idazlearen biografia eta lana aztertu ondoren, zeintzu ezagugarri nabarmentzen diren).
- bibliografia.

Ikus dezakezuen, idazle bakoitzaz informazio oso bat ematen du, euskara errazean eta labur (ez du hitzik debaldetan esaten).

«Euskal Literatura»ren hirugarren liburuki hau lehenaren eta bigarrenaren atzetik dator; eta laugarren bat argitaratuko da, azken urteotako idazleei buruz.

Norentzat dira liburu hau? Gazteentzat eginak dira, idatzi eta argitara dutenek bere dioskutenez. Beraz, oso interesgarriak, ikastoletako azken mailetako ikasleentzat, erdal kolegioetan euskal literatura irakasten dutenentzat, alfabetakuntza bukatu dutenentzat, eta, zergatik ez? presaka bizi eta liburu sakonagoak irakurtzeko astirik ez duten adinetakoentzat. (Xabier GEREÑO.)


Albistariak:

Xabier GEREÑO
Leon HAIZAGER
Gexan LANTZIRI
Joanes LEKERIKA
Joan Mari MENDIZABAL

GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa

Liburudenda
Euskal liburuak



EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1

Breznev gaixorik ote?

Zer gertatzen da Kremlinen? Leonid Breznev gaixorik ote dago? Edo beste zerbait gertatzen ahal da?

Zorionez edo zoritxarrez, bi begi daduzkagu. Batarekin Ipar Amerikara begiratzen dugu. Bestearekin, Sobiet Batasunera. Bihotza ere hala erdibanatu zaigu, gainera. Zorionez edo zoritxarrez.

Frantziako **Le Monde** arratsaldeko egunkari famatuak zurrumurruaren berri eman zuenez, gauza seriooki hartzekoa dela pentsatzen dut. Aldakuntzaren batzuk gertatuko ote zirela zioen egunkariak, dena soseguz ez zegoela eta.

Lehendabizikoz zabaldu zena, Breznev gaixorik zegoela izan zen. Hain zuzen, Egiptora, Siriara eta Iraquera egin behar zuen itzulia atzeratu egin baitzuen. Eritasunak oro bota dizkiote Breznevi bizkarrera: neumonia, biriketako gaitza, gripe, hortzetako mina, odoleko gaitza, «eta abar» luze bat. Ipar Amerikako ospital batetan dagoela ere zabaldu da.

Breznev jaunaren eritasunaren berria, Egiptoko ministroak Moskura joan zirelarik hasi zen burrundada hartzen. Baina orduan bertan esan zenez (74-XXII-29), eritasun politikoa zen hura, eta ez besterik. Halegia, Egiptorekin ez zela politikaz bat etorri. Diotenez, Sobiet Batasuna ez dago Egiptorekin batere pozik. Izan ere, Nasseren garaitik du Egiptok Sobiet Batasunarekin ekonomiazko zorra. Eta politikazko zorrak ere ba ditu, alde batetik kontseilari eta gerla teknikari sobietikoak etxera bidaliz, eta bestetik Estatu Batuetara begi keinu baino gehiago ere eginez. Gisa denez, garantiak eskatu dizkio Kremlinek Sadati.

Eritasun politikoa hala interpretatu zen egun haietan, eta denak pozik. Baina ba da besterik ere. Zeren eta Breznevek, Jugoslaviara egin behar zuen ibilaldia ere utzi egin baitu. Horrela baldin bada, eritasun hori ez dago arabiar politikari soilki lotua. Bietatik bat, edo Breznev gaixorik dago beretan edo Gobernuak hauziak daduzka barnean.

Informazio ofizialen faltaz, segurtasunik ez badugu ere, eta, lerro hauk idazten ari garelarik, kanpora begira deus berririk gertatu ez bada ere, ba dirudi Politburo delakoan Breznev hauzitan jarria dela. Ez duela lehengo laguntzarik. Urte Berriko mezurik ez zuen Breznevek irakurri (eta berak sartua zen ohitura hori). Gobernuak beste inork ere ez. Telebistako arduradun batek irakurri zuen.

«Tass» berri emale ofizialak aldarrikatu duenez, «Alderdi eta Sobiet Herria baturik daude, eta herri sobietikoak bere zuzendaritzari, bere Alderdiari eta bere Batzorde Nagusiari laguntza osoa eskaintzen die eta haiengan uste osoa du».

Susmoak sortu ditu deklarapen honek. Hor dagoke enigmaren gakoa. Debaldean ez baitira egiten holako deklarazioak.

Lehendik ere ba genekien, Breznev Kremlinen bertan oso kritikatu zela. Egiptorekin eramane duen politikaren frakasua, Estatu Batuei juduen emigrazio arazoan amore ematea eta Mendebaldeari eta Estatu Batuei horrenbeste hurbiltzea bota zaizkio aurpegira. Alderdiko gogor zenbaitek ez diote hori barkatzen. Breznevek, ekonomia eta merkatalgo aldetik bederen, Sobiet Batasuna ireki nahi izan du.

Sakharov zientzizagizon eta oposiziokoak deklaratu du, halegia, Breznev kentezarekin barneko eta kanpoko politika gogortu egingen dela Sobiet Batasuneari.

Breznev berri joateak Europako Alderdi Komunisten estrategiarako ere ba du garrantzirik. Europako sistema demokratikoetan parte hartzea erabaki zuten oraindik orairitsu Alderdi Komunistek. Arazo horretan buru eta

bihotz jokatu duen bat, Frantziako AK-ren buru den Marchais izan da. Hau ere gaixorik dago. Benetan. Baina gaixorik jarri aurretik, azken Kongresuaren ondoren, edo politika aldatu beharrean edo postua utzi beharrean aurkituko zela irakurri izan dut behin baino gehiagotan. Gertatuko denaren zain gaude.

Europa Espainiarekin?

Europako 60 jaun ospetsu eta Espainiako 30 oposizioko jaun bildu dira hilabete honen 10 eta 11n, hamar ordutako elkar hizketa egiteko, Bruselasetan. «Gaurko Europako Errealitateen Klub» delakoak deiturik.

Klub honetakoak dira nonbait gizon ospetsuok. Estatu desberdinetakoak. Europarrak eta Europazaleak. Europa aberriaren aldekoak eta egileak.

Hogeita hamar espainol horik eskualde guztietakoak eta oposizioko tendentzia guztietakoak ziren. Donostiako Múgica ere han zen.



Zer egin genezake laguntzeko?

Espainiaren egoera ezagutzeko, eta bederatzien Europa eta Espainiaren arteko harremanak nolakoak diren eta izan behar luketen eztabaidatzeko, Espainia ezofizialari dei egitea, hori da harritzekoa.

Europa politikoa nola egin? Hor dago gakoa. Nola egin Espainiarekin? Horixe zen hango arazorik funtsezkoena.

Garbi ikusi zenez, Espainia, «reserva espiritual» eta «destino eterno y universal» duen herria delarik, Europak ez du Pirinioak iragan nahi. Europak bere irudi eta antzeko nahi du Espainia, hau da, politikazko sistema berdintsukoa. Eta, esan dutenez, aldakuntza bat eskatzen du horrek.

Azken finean, Europaren aldetik, han esan zenez, oztzopoa ez da ekonomiazkoa, ez eta ez dakit nongo gorrotoarena, gutiago inbidiarena. Politika da behaztoparria. Hemengo sistema politikoak demokrazi modu horrekin zerikusirik izan nahi ez dueino, Europak ere ez Espainiarekin.

Politikazko sistema biren desegokitasuna, han ziren espainolen aldetik, garbi agertu zuen Luis González Seara, Madrileko soziologoak. Hark esan zuenez, maila askotan Espainia herri moderno da, Europar Komunitatetik aski hurbil dagoena, hazkunde maila kaxkarragoarekin bada ere; baina haren politikazko sistema europar era demokratikoekin ez dator bat.

Europako inbitzaillearen artean ere eritzi asko eman zen horretaz. Jean Rey, Merkatu Batuko ohorezko le-

hendakariak, Komunitatean sartzeko bi baldintza ezarzen dizkio Espainiari. Bata erlijiozko askatasuna, eta horretan urrats handiak egin direla dio; eta bestea politikazko eta sindikatuetakoko askatasuna.

Sindikatuaren Europar Konfederazioaren idazkari nagusi den Theo Rassaers jauna ere ezin argiagoa da, zera dioenean: «Sindikari bezala, esan dezaket, merkatal harremanetatik hara ez gairela joan eta ez gairela joango».

Merkatu Batuko gizarte arazoetarako lehendakari laguntzaileak azpimarkatu duenez, orain arte ekonomiaren aldetik Espainiari eskaini zaion laguntza, modernizazioaren bidez aldakuntza politiko eta sozialak gerta zitezen emana da.

Altiero Spinelli jaunak esan duenez, honen azpian dagoena zera da, zernolako Europa nahi den. «Guk ez dugu nahi merkatarien Europa kapitalista bat. Herrien Europa bat behar da. Ekonomiarentzat bakarrik mugak irekiz, amesten dugun eta behar dugun Europarik ez da eginen».

Ba du eskubiderik Europak, hara sartu nahi duten herriei politikazko baldintzarik ezartzeko. Espainiak sartzeko ala ez duen bezalaxe. Eta ikusten ari garenez, Europa egiteko, gutienez demokraziako sistema politikoaren jabe izatea eskatzen da.

Pueblo egunkari ezaguneko Salvador López de la Torre jaunak ez du begi onez ikusten holakorik. Hase-reea dario leku guztietatik: «... 'europar pertsonaia' direlakoan talde batek (ofiziorik gabe, baina benefizio askorekin), bilkuratik zera ondorioztatzea, hategia, Espainiak, bere politikazko egiturak aldatzen ez dituen bitartean, Merkatu Batuko ateak hitxirik dituela, hori burujabetasunaren kontrako atentatu jasan ezina da» (geuk azpimarkaturrik).

Minoritateei buruzko nazioarteko konferentzia Triesten

Ondoren emanen dugun albistea, egia esan, ez da erabat «berria»; baina, gure artean aipatua denez gero, uste ukan dugu komenigarri zatekeela hemen agertzea.

Triesteko eta Goriziako administrazio probintzialek, Friuli-Venezia Giulia eskualde autonomoaren babespean, eraturik, 1974.eko uztailaren 10etik 14era artean, nazional minoritateei buruzko batzarre oso garrantzitsu bat egin zen Triesteko hirian. Haren erakuntzan parte hartu zuten 40 zientzigionen artean, Paulo Freire pedagogogo ezaguna, Jean Marie Domenach, «Esprit» aldizkariaren zuzendaria, J. W. Brügel, Txekoslovakiako ministro izandakoa, Arduino Agnelli, Triesteko Unibertsitateko Historiako irakaslea, eta Vladimir Dedijer, Russell tribunalekoa, Tito mariskalaren biographo ofiziala zeuden. Edonolakoak ez ziren, halajaina!

Hauz gainera, beste 835 lagunek hartu zuten parte, eta euskaldunon errepresentazioan Federiko Krutwig euskaltzaina egon zen, Euskal Herriko hizkuntz, kultur, histori, soziologi eta ekonomi egoera bertan azalduz. Esan zituen gauzen artean, ondoko hauk seinala ditza-kegu:

«Euskaldunek ez dute minoritate izateko konplexurik; ez daude Estatuko hiriburuari aho zabalik begira. Euskaldunok ba dakigu, herri bakoitza berez den bezala hartu behar dela, dituen bizilagun ugari edo urriak kontuan eduki gabe. Beren Estatuaren barruan daduzkaten minoritateez burlatzen direnek, pentsatu egin behar lukete, Europako herri guztiak, beraik barne, Txinarekin konparatu gero, minoritate barregarri batzuk baino ez liratekeela, horretara joanki. Euskaldunak kultur eta politikalkintzetan aurrerazale eta ekintzaile agertzen dira, beren egiazko giza eskubideak ongi ezaguturik».

«Ba daude, ordea —segitzen zuen Krutwigek—, inoren azpian daudelako lotsa edo konplexua duten minoritate batzuk, hala nola okzitaniarrak edo eta irlandesak berak, berauek Estatu propio bat ukan arren. Ez da, zinez esanik, euskaldunon kasua hau».

Gure euskaltzaina, kultura, eskola eta mass-medi- en batzordeko presidentekide izendatu zuten bertan; eta, **Corriere della Sera** (74-7-12), **Fränkischer Tag** (74-7-20)

eta **L'Unità** (74-7-15) egunkarietan irakur daitekeenez, ohi ez bezalako arrakasta lortu zuen beste batzarkideen artean. Bere txanda bukatu ondoren, Jugoslaviako telebistak eritzi trukaketa bat filmatu zion, eta Suitzako irratia- k elkar hizketa bat egin ere bai.

Autoen ibilerazteko ekai berri bat

H.R. hizki* horik* biok petroliorik gabeko erregai* mota berri baten asmatzailearen izen-deituretarik jalgiak* dira. Autoen motorrentzako ekai* berri horren asmatzaile- inginadore bat da: Henri Rothlisberger, Beaulieu-sur-Mer deitu* herrian, Niza ondoan bizi dena.

Autoen ibilerazteko moldatu duen erregai berria, egur, artalasto edo beste edozein landare hondakin, bai eta plastikozko hondakinetarik ere jalgia du. Orain baliatzen den erregaia baino aberatsagoa omen da.

Oraingoz 30.000 kilometro ba omen ditu eginik asma- tzaileak bere erregai berriarekin. Indartsuago izanik, H.R.ak ez du kerik ez berunik* ez eta urik botatzen kan- pora. Eta orain autoek airea 4,5ez gutienez pozoindatzen badute, erregai berri honek 1,5ez baizik ez du egiten. Beste abantail* bat ez ttipia, asmatzailearen ustez: H.R.a 45 zentimo baizik ez omen litzateke kostatuko li- troko.

Ekai berri hau eter ura baino anitzez* baliosagoa omen da, zeren* eta eter urak luza gabe herdoil erazten baititu motorreko piezak. Inginadore honek beronek eter urarekin kurri erazi omen zuen auto baten motorra 1939.ean; baina, aipatu dugun arrazoinengatik bazterrera utzi gero.

Ea, bada, noiz petrolio konpainia haundi horiek ekai berri hau utziko duten saltzera! Dударik ez da, ba lukeela erosle.

Berri laburrak

● Mitterrand, ezkeraren buru ezofizialak eta Al- derdi Sozialistaren buru ofizialak, Frantziako Alderdi Sozialista ezkerreko lehen alderdia dela esan du.

● Palmer lehendakari sozialistak deklaratu duenez, Europar Alderdi Komunistek agintera jo nahi badute, erreformista bihurtu beharra dadukate. Marchais bera ere erreformista dela esan du, gainera.

Bihotzeko gaitzarekin ospitalean dagoen Marchais jaunak nola hartuko ote du hori? Ez dio grazia handirik egingo, oker ez banago. Orain arte, mespretxu olinpi- koarekin iraultzaren nobizio bezala tratatzen zituën «gau- chiste» direlako ezkertiarrek esaten baitzioten holakorik.

● Bizi dugun, eta batez ere biziko dugun, krisia ez da olgetan ibiltzekoa. Arriskutan dagoena ez da ekonomia bakarrik; berdin daude gizartearen eta politikaren es- trukturak oro ere.

Saihets askotatik ikusi behar da krisi hau. Krisi ho- nek hauzitan jartzen du gure abundantziaren, kontsumoa- ren eta superproduzioaren zibilizazioa. Petroliodun he- rrien aurrerakadak kanbiatu egiten ditu Hirugarren Muri- duarekiko harremanak. Leku eta herrialde askotan, gose eta miseria gorriaren egoera biziagotzen ari da.

● Merkatu Batuko Batzorde Erabakitzaileak berri- kitan aditzera omen duenez, Europaren bizi maila behe- raka joango da, eta langabezia goraka.

Diotenez, behi argalen egoera honek hamar bat urte iraungo omen du, inflazioagatik eta energiaien eskasia- gatik batez ere.

Krisi honek ez omen du, gainera, Europaren batasuna fitsik ere lagunduko. Herrialde bakoitza, izan ere, pro- blema desberdinekin dago eta. Esaterako, Alemaniari ko- meni zaiona, Italiaren kaltetan izan daiteke. Nekazaritzaz arduratzen diren ministroak bildu direlarik, argi eta garbi ikusi dugu esandakoa.

Idazleak:

Joan ALTZIBAR
Gexan LANTZIRI
Joanes LEKERIKA
Patxi URTIAGA

HIZTEGIA

IMANOL BERRIATUAK

Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

A

ABANTAIL. **ventaja**.
 ABANTAILATU. **azkartu, sendotu**.
 ABELGORRI. **ganado vacuno**.
 ABONATU. **suscriptor, abonado**.
 ADIN. **edad**.
 ADINAKO. **ainako, besteko, bezainbatako**.
 AGIAN. **beharbada, nonbait**.
 AGORRIL. **abuztu**.
 AHALAZ. **ahal dela**.
 AHULEZIA. **makaltasun**.
 AINA. **adina, beste, bezainbat, bezainbeste**.
 AIPATU. **aipatutako, aipaturikako, aipaturiko**.
 AITZINA. **aurrera**.
 AITZINAMENDU. **aurreramendu, aurrerapen**.
 AITZINATU. **aurreratu**.
 AITZINERAZI. **aurrera erazi**.
 ALABAINA. **izan ere, en efecto**.
 ALDARRIKATZE. **proclamar**.
 ALDIZ. **berriz, ordea, ostera**.
 ALEGIA DEUS ERE EZ. **antza ezer ere ez. (HALEGIA a saber, es decir, esto es)**.
 ALTABADA. **hala ere**.
 ANGELU. **Lapurdiko Anglet**.
 ANITZ. **asko**.
 ANTZA. **dirudienez**.
 ARABERA. **arauera, según, conforme**.
 ARARTEKO. **intermediario**.
 ARAUERA. **arabera, según, conforme**.
 ARAUEZ. **proporcionalmente**.
 ARAUEZ KANPOKO. **anormal**.
 ARE. **orandik, aún, encore**.
 AREAGO. **oraindik gehiago**.
 ARETO. **sala, salón**.
 ARRABOTS. **zarata, ruido**.
 ARRAKASTA. **éxito, succès**.
 ARRAS. **gutziz, osoki**.
 ARRETA. **cuidado, detenimiento**.
 ARRUNT. **común, corriente, ordinario**.
 ARTATU. **arduratu**.
 ASKI. **nahiko**.
 ATEREA. **aterala, ateratakoo**.
 ATXEKI. **adherido, apegado**.
 ATXEKITZE. **conservar, mantener**.
 AZKARKI. **fuertemente**.

B

BAILARA. **bailada, eskualde, comarca, cuenca**.
 BAITAN. **-gan**.
 BAILIREN. **balira bezala, como si fueren**.
 BAITEZPADAKO. **beharbeharrezko**.
 BAPATEKO (bat + bateko). **repentino, súbito**.
 DARAZKI. **ortuari, hortaliza**.
 BARIK. **gabe, en vez de, au lieu de**.
 BATUSUN. **eikarte, elkargo**.
 BATZUK. **zenbait. (Batzuek aktibo, batzuek pasibo)**.
 BEDEREN. **behinik behin, behintzat, gutienez**.
 BEGIRATZE. **zaintze, jagote, gordetze**.
 BEGIRUNE. **consideración, respeto, miramiento**.
 BEHATZAILE. **behar, espectador**.
 BEHINGOAN. **berehala**.
 BER DENBORAN. **denbora berean**.
 BEREKIL. **automóvil**.
 BERRIKITAN. **berriki, recientemente**.
 BERUN. **plomo, plom**.
 BESTE. **bezainbeste, aina**.
 BEZERO. **cliente**.
 BIDE. **beharbada, nonbait**.
 DIDEZKO. **gisako, legítimo, justo**.
 BIHOAZKIE. **joan bekizkie (bekioez)**.
 BILAKATU. **birurtu**.
 BILAKATU. **bihurtu**.
 BILDU. **recogido, reconcentrado**.
 BILKURA. **bilera, reunión**.
 BIPIL. **resuelto, decidido**.
 BITZUK. **dos grupos**.
 BULEGO. **oficina, bureau**.
 BURKIDE (buru + kide). **camarada**.
 BURRUSTAN. **a mares, en abundancia**.

D

DAGOKE. **dago nonbait, debe de haber, habrá, debe de estar**.

DAITEKEA. **al daiteke?**
 DAITEZKEA. **al daitezke (daitezkez)**.
 DAKIKEGU. **dakigu nonbait**.
 DAKUSAGU. **ikusten dugu**.
 DARAMA. **daroa, cramatan du**.
 DATEKE. **da nonbait**.
 DEA (da + a). **al da?**
 DEIGARRI. **llamativo, atrayente**.
 DEITU. **deitutako, deiturikako, deituriko**.
 DEITURA. **apellido, nom de famille**.
 DERRIGORREZKO. **beharbeharrezko, baitezpadako**.
 DEUS. **ezer**.
 DEUSEZTATZAILE. **destructor, aniquilador**.
 DIOTEA. **al diote (deutsoe)?**
 DIRATEKE. **dira nonbait. (Izango dira ordarakada bat da.)**
 DIREA (dira + a). **al dira?**
 DIRU ISURKI. **liquidez numeraria**.
 DOHAINIK. **dohan, doharik, urrurik, gratis**.
 DOI. **poco, apenas**.
 DUKEGU. **dugu nonbait**.

E

EGIAZTAPEN. **aseveración**.
 EGIN. **igarri**.
 EGITARAU. **programa**.
 EGITURA. **estructura**.
 EGUN. **gaur**.
 EGURATS. **atmósfera**.
 EKAI. **gai, materia**.
 EKIN. **jarraiki, tenaz, insistentemente apicado**.
 ENGLANTINA D'OR. **urrezko astalarrosa, rosa silvestre de oro**.
 ERABAKIGUNE. **centro de decisión**.
 ERABAT. **gutziz, osoki**.
 ERAGIN. **eragipen, influencia, acción**.
 ERAGIPEN. **eragin, influencia, acción**.
 ERAKUNDE. **organismo, entidad**.
 ERAKUSTOKI. **museo**.
 EREMU. **terreno, dominio**.
 ERITASUN. **gaixotasun**.
 ERORTZE. **jauste**.
 ERRAIAK. **entrañas**.
 ERREGAI. **combustible**.
 ERROTIK. **radicalmente, a fondo**.
 ERRU. **hoben, culpa**.
 ERTZ. **hegi**.
 ESATERAKO. **esate baterako, por ejemplo**.
 ESKUALDE. **comarca**.
 ESKUALDEKATZE. **distribución comarcal**.
 ETXOLA. **txabola**.
 EUSTAILE. **sostengatzaile**.
 EZELAKO. **inolako**.
 EZEN. **ze, pues**.
 EZEZIK. **no solamente**.

F

FIDAGAITZ. **desconfiado**.
 FLEITE. **buena disposición, buena forma**.
 FROGATU. **probado, demostrado**.
 FUNYS. **fondo, fundamento, sustancia, esencia**.

G

GAINDI. **zehar**.
 GAUBEILA. **gaubela, vigilia nocturna**.
 GERA. **geldi, quedar, rester. (GERATU, gelditu, quedado, resté.)**
 GERATZE. **gelditze**.
 GERTATU. **gertatutako, gertaturikako, gertaturiko**.
 GIBELATU. **atzeratu**.
 GISA (1). **era, modu**.
 GISA (2). **bezala**.
 GISA (3). **gisako, bidezko, justo normal**.
 GORABEHARA. **a pesar de, malgré**.
 GURARI. **nahikari, deseo**.
 GUTIESTE. **menospreciar, subestimar**.

H

HALABER. **asi mismo, también**.
 HALEGIA (hala + egia). **a saber, es decir, esto es. (ALEGIA, ficción.)**

HASERA. **haste, hastapen, comienzo**.
 HASIAN HASI. **ya que hay que empazar, puis qu'il faut commencer**.
 HASIERA. **hasera, haste, hastapen, comienzo**.
 HAUK. **honeek. (Hauek aktibo, hauk pasibo.)**
 HAXEAN EZARRI. **puesto a punto**.
 HAZIL. **noviembre**.
 HAZKUNDE. **desarrollo, développement**.
 HEDATU. **zabaldu**.
 HEDATZE. **zabaltze**.
 HEBIDE. **dirección, adresse. (ZUZENBIDE, justicia, derecho.)**
 HELDU. **agarrado, asido, saisi**.
 HETSI. **hixi, cerrado, fermé**.
 HEZIKETA. **hezkuntza, hezkunde, educación**.
 HEZKUNTZA. **hezkunde, educación**.
 HEZTE. **educar**.
 HITZARMEN. **convenio**.
 HITZARTZE. **contratar**.
 HIZKI. **letra**.
 HOBENDUN. **hobenduri, errudun, culpable**.
 HONDAR. **azken**.
 HORIK. **hoik, horreek. (Horiek aktibo, horiek pasibo.)**
 HORREGATIO. **horrela ere**.
 HORRETAZ. **por consiguiente**.
 HOSTOALDE. **horrialde**.
 HOTS. **a saber, es decir, esto es**.
 HUNKIPEN. **emoción**.
 HURA. **ha**.

I

IA. **kasik**.
 IGANDEKARI. **en domingo**.
 IGARRI. **acertado, adivinado, deviné**.
 IGARTZE. **acertar, adivinar, deviner**.
 IKUSGARRI. **espectáculo**.
 IKUSTATE. **consideración, gratificación**.
 IRAGAITZAZ. **incidentalmente, de paso**.
 IRATXO. **duende, petit fantôme**.
 IRTEN. **urten, atera, jalgi**.
 ISTILU. **conflicto**.
 IZANKI. **izanik**.
 IZARI. **neurri**.

J

JADANIK. **ya**.
 JALGI. **irten, atera**.
 JALGITZE. **irtete, ateratze**.
 JARRAIKI. **ekin, asiduo, aplicado**.
 JARRERA. **actitud, postura**.
 JASAN. **soportado, sufrido**.
 JASATE. **soportar, sufrir**.
 JAUSI. **erori**.
 JOKIZUN. **pieza para tocar**.
 JOAN. **joandako, joanikako, joaniko**.
 JUJE. **juez**.

K

KAUSITZE. **éxito, réussite**.
 KILIKA. **kilikor, quisquilloso, aprensivo**.
 KUDEATZE. **dirigir**.
 KUDEATZAILE. **director**.

L

LANGALDE. **demanda de trabajo**.
 LAPRASTADA. **resbalón, resbaladura, glissade**.
 LELO. **cantínela**.
 LIBERA. **franco**.
 LIBURUKI. **tomo, volumen**.
 LITZATEKEA. **al litzateke?**

M

MAIZ. **sarri**.
 MARRAZKI. **dibujo, dessin**.
 MEALAGINTZA. **industria minero-fabril**.
 MEHATXU. **zamai, amenaza**.
 MENDEKU. **venganza**.
 MENTURAZ. **beharbada**.
 MERKATAL. **comercial**.

N

NABARI (1). **advertir, notar. (NABARITU, advertido, notado.)**
 NABARI (2). **ovidente, notorio, patente**.
 NABARITZE. **sentir, advertir, notar**.
 NEKE. **neketsu**.

Ñ

ÑEURRI. **medidita, pequeña medida**.

O

ONURAGARRI. **provechoso**.
 OREN. **ordu**.
 ORO. **guzti**.
 OROBAT. **igual, igualmente**.
 OROKOR. **general**.
 OSTERA. **aldiz, berriz, ordea**.
 OSTERANTZEKO. **diferente, diverso**.
 OTSAIL. **febrero**.
 OTSO. **lobo, loup**.

P

PARRASTA. **cantidad considerable**.
 PILIKA. **gran cantidad**.
 PRESENTEON. **en el momento presente. (Ikus -Axularren Hiztegia-.)**
 PRIMANTZA. **lehentasun, primacia, prioridad**.
 POSTALGO. **correos, postes**.

S

SINATZE. **firmar**.
 SINATU. **firmado**.
 SINETSI. **convencido, convalincu**.
 SOS. **diru**.
 SUGEA EGITE. **salir todos en fila, arrastrando a los demás**.
 SUHAR. **fogoso, ardoroso, entusiasta**.

T

TANKERA. **estilo**.
 TAMALGARRI. **penagarri, lastimagarri**.
 TRAPACA. **San Salvador del Valle**.

U

UDAL. **municipio**.
 UKAN. **izan. (Ukan aktibo, izan pasibo.)**
 UKITU. **tocado. (HUNKITU, emocionado, conmovido.)**
 UKITZE. **tocar. (HUNKITZE, emocionar, conmover.)**
 URRATS. **pauso. (PAUSU, descanso, reposo.)**
 URRURIK. **dohainik, dohan, doharik, gratis**.
 URTARRIL. **enero, janvier**.

V

VIOLA D'OR I ARGENT. **urrezko eta zilarrezko bioleta**.

X

XEDE. **fin, objetivo, propósito**.
 XUME. **xehe, sencillo, humilde**.
 ZEINTZU. **cuáles. (ZEIN, cuál.)**
 ZEMAI. **mehatxu, amenaza**.

Z

ZEREN (ETA) **ze, pues**.
 ZERGA. **impuesto, contribución**.
 ZERTZELADA. **detalle**.
 ZINEZ. **benetan**.
 ZITAL. **terco, tétu**.
 ZOZKETA. **sorteo, tirage au sort**.
 ZUZENETSI. **aprobado, considerado justito**.

Ibarraren barnean, Zegama-k izan du orain artean industri aurpegi biziarena.

Bost herriok berezko batasun bat osatzen dute. Geografiak eman dien batasun natural horrek, ordea, ez du aurkitu oraindik, instituzioen mailan (Partzoneria aparte uzten dugu hemen), zerbitzuetan eta Udalen arteko politikan premiazkoa zen batasunik. Zatikatu bizi da bailara hau.

Baina horra: gutiena uste zenean, sekula santan inork pentsatuko ez zuen amenazu eta mehatxua sortu zaio ibarrari. Urtegia egin nahi dute han Diputazioaren injinadoreek. Horra, ba, herrioren gain Damokle-ren ezpata eroriko, ez eroriko! **Segura**-ko urtegia da ezpata hori. Herriko jendea galdezka jarri da: urtegian itoko ote dute bailara? Zein da hondamendiaren haundia?

Noren bizkarretik egingo da?

Herri-hauzoak asaldatu egin dira, urtegi plangintza albistea entzun dutenean. Pixkaka pixkaka gorputz hartzen ari da haserre hori. Lehenik, desjabetuak izateko direnek jakin nahi dute zergatik eta zertarako egin nahi den urtegi hori. Informazio faltaz, jendeak ez daki deus haundirik. Geroxeago eta berrikerian, herri osoak dira kezkatuak. Izan ere, hondamendia egundokoa izan liteke.

Segura-ko lur jabeek ageri bat zabaldu dute, urtegiak ekar ditzakeen kalteak ezagutzera emanaz. Bailararen lurrik onenak urpean galduko dira: 800.000 metro koadratu. Segura-n bakarrik 40 etxe-bizitza galduko dira, 60 familiaren kaltetan. Lur eta etxe jabeon arazoa nahiko interesatua dela norbaitek pentsatu nahi balu ere, ageri berak beste zerbait astunagorik aipatzen du: **herri osoak dira hondatuko direnak**.

Mutiloa bailararen hegal batean dago, irtenbide natural bakarra Segura-tik duela; baina urtegiak urez estaliko dio bidea. Mendiz eta urez inguratuta, Mutiloa isla bat gertatuko da laster. Hustuz doazen baserrietatik, zein geratuko da beterik desterru berri horretan? Galdera, egitekoa da gutienik.

Zegama-ren kasua ez da gozoagoa gertatuko. Trenbidea, herri-kaskotik kilometrotara du eta herria bailararen azkeneko ertzean dago. Harremanak Segura-n zehar egin ohi ditu. Ibarra ur-estaltzen denean, urrunago eta deserrituago geratuko da. Dagoeneko, hainbat zegamar gazte kanpora ezkontzen baldin bada, urtegia tarteko dela, ilunago jartzen zaio oraindik Zegama-ri bere etorkizuna.

Urtegia bailararen biotz-bihotzean ezarri gero, ibar osoa ardatzik gabe aurkituko da. Oria Garaia ez da, inola ere, mendi zoko bat. Ahalbiderik ederrenak dituen haran bat baizik. Gipuzkoak, ukitu ere egin gabe duen bailara aberasgarri hori eutsi egin beharko lioke. Edo, gutienik, argi eta garbi jakin beharko litzateke noren ize-nean eta probetxutan ito nahi den Oria Garaia. Lehenengo batean, errazena eta ekonomikoena dela uste izanik ere, gerta liteke erabaki hori luzarora galgarriena izatea ere. Herria iratzartzen ari da bere aspaldidaniko lozorrotik.

Urtegia noren ondran eta probetxutan?

Aipatutako bileran galdera horixe egin da: «Diputazioak egin nahi digun urtegi hori **noren probetxutan** as-

matua da?». Gipuzkoak ura behar du, eta are eta gehiago datozen urteetan. Konforme. Baina bailara horretan eta horrela kokatzea ahal da komenigarriena Gipuzkoarentzat? Ekonomi arrazoin hutsekin erabakitzen, eta zuzen erabakitzen, eman ahal liteke urtegiaren kokamena?

Herrietan susmo txarrak zabaldu dira. Oso fidagaitza bihurtu da jendea, izan ere ez baitaie deus galdetu. Udaletxeek berek ere ez dute ezer ezagutu, urtegien plangintza ontzat eman den arte. Diputazioak, legez, ez daduka galdetu beharrik. Horrela, ba, goitik —bakartaterik bulegokratikorik haundienean— ezarritako erabakia da Segura-ko urtegiarena. Aurtengo Gabonetarako Ministruen Kontseiluak ere aproba omen dezake plangintza.

Bileran irakurritakoak esaten zuenez, «herrietako guztiok pantano psikosi batekin bizi gara». Sor litezkeen industriak, asmo hutsetan itoko dira. Ez dira jaio ere egingo. Espezializatzen ari den gazteriak ez du bailaran lanleku egokirik aurkituko. Lantegi garbi batzuk erakarri ordez, uxatu egin dira. Eta dena, Oria hibaiak geroz eta zaberrera eta zikinkeria gehiago eraman ahal dezan... Holatsu hitz egiten du jendeak Oria Garaiko herrietan.

Bost herrietatik Batzorde bat osatu da, Udaletxeek ere parte hartzen dutela. Oraindik erantzun gabe dagoen galdera bat egin du beronek: norentzat da urtegia? Gipuzkoaren onerako ala bizpahiru industria haundiren irabazietarako? Nortzuk dabilta, isil-misilka, asmoa bultzatzen?

Segura-ko Udalak erabaki du urtegiaren kontra eginaletan saiatzea. Ba liteke, laster, gainerako lau Udalek ere hori berori erabakitzea. Elkartasun bat sortzen ari da, bizi-nahiak akuilaturik. Izan ere, ez dago batere argi, zertarako nahi den urtegi hori. Industri ura izango omen da, Oria zikindua garbitzeko, nonbait. Baina industri uren garbiketarako eta Gipuzkoaren eko-sistemak salbatzeko premiazkoak diren makina garbitzaileak muntatzera industriak berak behartu ordez, oraindik ere garbi-garbi dadukagun bailara oso bat heriotzera kondenatu nahi da. Oria hibaiaren zikinketa metodurik kontrolatuenarekin segitu nahi da, nonbait...

Informazio premia

Oria Garaiko jende kezkatuaren artean entzuten denez, urtegiaren planteamendua oinharrian da faltsua. Gipuzkoari bailara garbi eta txukun bat lapurtzen zaio, Oria Berheko industria zikinek oraindik zikin gehiago bota dezaten. Bailarako bizilaguntzat hondamendi osoa da urtegia. Plangintzak daraman prozeduraren aldetik, berriz, goiherritar hauei eta Gipuzkoa osoari premi-premiazkoa litzatekeen informaziorik eman gabe egin da lan. Susmuru batek dioenez, guti batzuen probetxutan pentsatua da urtegi hori.

Plangintza hau elkarte onean eraman nahi baldin bada, beharrezkoa da herriari informazioa ematea. Legezko guztiak bete arren, ez da herriarekikoa, beste gabe, betetzen. Susmuruak desegiteko biderik egokiena, informazio egia eta argi bat izango da beti. Betor, beraz. Diputaziotik; baina ez jendea isilerrazteko, bakoitzari pentsatzen laguntzeko baizik. Goiherritarren elkarrizketa go-go horri Gipuzkoa guztiak lagundu behar dio, gipuzkoar denona baitugu Oria Garaiko urtegiaren arazoa.